

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko urtarrilaren 30a

7 ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:

- Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).
- Tuterako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (25. or.).

G Saila:**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA****Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 29an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak Barañaingo Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, argitaratu dadila agintzea.

Iruñean, 2001eko urriaren 31n

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (3. or.).
- III. Norainokoa (3. or.).
- IV. Iritzia (3. or.).
 - IV.1. Barañaingo Udala (4. or.)
 - IV.2. Erakunde autonomoak (4. or.)
- V. Finantzen egoera-orriak (5. or.).
 - V.1. Barañaingo Udala (5. or.)
 - V.2. Erakunde autonomoak (5. or.)
- VI. Barañaingo Udalari buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (12. or.).
 - VI.1. 2000ko aurrekontu bateratuaren beteazeari buruzko iruzkin orokorrak (12. or.).
 - VI.2. Finantza-egoera 2000ko abenduaren 31n (14. or.).
 - VI.3. Gorabeherak (16. or.).
 - VI.4. Administrazio kontratazioa (16. or.).
 - VI.5. Kudeaketari buruzko bestelako gomendioak (18. or.).
 - VI.6. Hirigintza (18. or.).

VI.7. Euroa sartzeari buruzko gogoetak (19. or.).

VII. Erakunde Autonomoak (19. or.).

VII.1. "Lagunak" Udaleko Kirol Zerbitzua (19. or.).

VII.2. "Luis Morondo" Udaleko Musika Eskola (20. or.).

I. eranskina. Barañaingo Udalaren organigrama, 2000ko abenduaren 31n (22. or.).

II. eranskina. Erabilitako adierazleen definizioa (23. or.).

Barañaingo Udaleko alkateak behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (24. or.).

Barañaingo Udaleko alkateak behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioen erantzuna (24. or.).

I. SARRERA

Barañaingo Udala Iruñerrian dago, eta mugakide da Foru Komunitateko hiriburuarekin. 21.660 biztanleko zuzenbideko populazioa dauka –2000ko errolda– eta, beraz, ikuspegi horretatik Nafarroako hirugarren toki entitatea da.

Bere jarduera burutzeko, honako erakunde autonomo hauek dauzka:

- "Lagunak" Udaleko Kirol Zerbitzua.
- "Luis Morondo" Udaleko Musika Eskola.

Bestalde, Iruñerriko Mankomunitatearen barruan ere badago, zeinak bere gain hartzen baititu uraren ziklo integrala eta hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua. 2000n bidaiarien garraioaren arloko eskumenak ere bereganatu zituen mankomunitateak.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2000ko zifrarik garrantzitsuenak honako taula honetan adierazten dira:

(pezetak, milioitan)

Entitatea	Aitorturiko obligazioak	Aitorturiko 2000-12-31ko eskubideak	langileria
Udala	1.450	1.921	109 (1)
Lagunak	183	179	18 (2)
Musika Eskola	108	111	30 (3)

((1) horietatik 13 aldi baterako lan-kontratadunak dira.

(2) horietatik 4 finko jarraigabeak dira.

(3) aldi baterako langileak, 14.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Barañaingo Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2000ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazioa egin dugu. Halaber, ekitaldi horretako gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen betetzea ere fiskalizatu dugu.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: aurretik aipaturiko legeek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuak, administrazio-kontratazioari nahiz hirigintza-kudeaketari buruzko arauak eta Nafarroako toki enteei orokorki aplikatzekoak zaizkien gainontzeko arauak.

Kontabilitate eta aurrekontu gaietako araubide juridikoa Nafarroako Toki Administrazioarentzako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu egiturari eta kontabilitateari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuetan ezartzen da. Hori aplikatzea nahitaezko bilakatu zen 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

a) Barañaingo Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2000ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 2000ko abenduaren 31n zegoen ondare-egoera agertzea, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkoa sun-printzipioari lotua egon ote den.

d) Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantza-egoera 2000ko abenduaren 31n.

e) Egin zuen azken fiskalizazio-txostenean, zeina 1999ko ekitaldiari buruzkoa baita, Kontuen

Ganbara honek eman zituen gomendioak noraino bete diren.

III. NORAINOKOA

Bere jarduketa-programari jarraituz, Kontuen Ganbarak Barañaingo Udalaren (hemendik aurrera, Udala) eta haren erakunde autonomoen 2000ko ekitaldiko fiskalizazioa egin du.

Udalak Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorra ezarrita dauka. Erakunde autonomoek ere badute kontabilitate orokorra, Udalean ezarritako kontabilitate-ereduaren aplikazio sinplifikatu bati esker.

Beraz, eginiko lanak haxe izan du arretagai: dirusarrera eta gastuei buruzko kapitulu ekonomikoak eta ondare-masak berrikustea, eta antolamenduari, kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkion hainbat puntu aztertzea.

Hirigintzari dagokionez, gure lanaren arretagai nagusia Plan Orokorraren betetzearen azterketa izan da, haren aldaketak aztertuz eta aurreikuspenak noraino bete diren ikertuz.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsiriko fiskalizazio-printzipio eta -arauak jarraituz burutu dugu lana. Era berean, Udalari alde aurretik bidalitako galdera-sortak agerian utzitako egoera eta arazoak kontuan hartuz beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatu ditugu.

Txostenean daude Udalaren antolamendua, barne-kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

Azterketa lana 2001eko apirilean eta maiatzean egin dugu.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak ematen dizkiegu Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei.

IV. IRITZIA

Egindako fiskalizazioaren esparruan, Barañaingo Udaleko eta haren erakunde autonomoetako 2000ko ekitaldiko egoera-orri finantzarioak aztertu ditugu.

Berrikuspina egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta -prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau agertuko dugu:

IV.1. BARANAINGO UDALA

IV.1.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionez

Erantsi dugun 2000ko aurrekontuaren likidazio egoerak behar bezala agertzen ditu, garrantzizkoak diren ikuspegi guztiei dagokienez, ekitaldiko dirusarrera eta gastuak, kobratzeko dauden esku-bideak eta ordaintzeko dauden obligazioak, bai eta 2000ko abenduaren 31ko diruzaintzako gerakina.

IV.1.2. Ondare-egoeraren agerpena

2000ko abenduaren 31ko egoeraren balantzeak Udalaren ondare-egoera behar bezala agertzen du, bi salbuespenekin: ibilgetua osatzen duten saldoen egokitasun edo fidagarritasun eza, eta inbentarioa –1992koa–, gaurkotu gabe baitago.

IV.1.3. Legezketasuna

Oro har, Udalaren jardura ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz egin da, administrazio kontratazioaren esparruan izan ezik, non ikusi ahal izan baita, azterturiko kasuetan, gai horri buruzko arauak urratu direla. Txostenean zehar zehaztuko dira urratze horiek.

IV.1.4. 2000ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko-finantzarioa

Barañaingo Udalak finantza egoera eroso erakusten zuen 2000ko abenduaren 31n: diruzaintzako gerakin garrantzitsua –1.331 milioikoa–, aurrezpen garbiko ehuneko altua –ehuneko 31–, zorpetze-maila txikia –ehuneko 3koa– eta 14 milioi pezetako epe luzerako zorra.

Halere, komeni da nabarmentzea Udalak transferentziekiko duen menpekotasuna, oinarriko eta funtsezko finantzabide baitira, izan ere aitorturiko 100 pezetatik 57 horretatik heldu baitira.

IV.1.5. 1999ko txostenaren gomendioen jarraipena.

Kontuen Ganbarak eginiko aurreko fiskalizazio txostenean, 1999ko ekitaldiari buruzkoan, eginiko gomendioen ezarpenari dagokionez, ondokoak adierazi behar ditugu:

- Barne Araubidearen Erregelamendua ez da onartu.
- Erakunde autonomoen kudeaketaren gaineko jarraipen eta kontrol prozedurarik ez da taxutu ez eta aplikatu ere.

- Epe ertainera eta luzera udal finantzen egoera agertuko duen ekonomia- eta finantza-proiektzioa azterlanik ez da egin.

IV.2. ERAKUNDE AUTONOMOAK

IV.2.1. “Lagunak” Udaleko Kirol Zerbitzua

Gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren likidazioak behar bezala islatzen du “Lagunak” zerbitzuaren jardura, nahiz eta kutxa-irizpidea nagusiki erabiltzen den egitate ekonomikoak kontabilitatean erregistratzean, aurreko ekitaldietan bezalaxe,.

Egindako jarduerak islatzen dituzten eragiketak ez daude aginduzko kontu-hartzailatza publikoari lotuak, eta kontabilitateko egitateak nahiko atzerapen handiaz erregistratzen dira.

2000ko abenduaren 31ko egoeraren balantzeari dagokionez, kontabilitate sistemaren produktu automatikoa da, garbiketa eta analisi prozesurik gabea eta udal ondasunen adskripziorik gabekoa. Beraz, fidagarritasun gutxiko dokumentua da.

Azkenik, batez ere aurrekontuaren aldaketen inguruan, indardun arauak ez direla bete ikusi ahal izan da.

IV.2.2. “Luis Morondo” Udalaren Musika Eskola

Gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren likidazioak behar bezala islatzen du Eskolaren jardura, nahiz eta kutxa-irizpidea lehenasunez erabiltzen den egitate ekonomikoak kontabilitatean erregistratzean, aurreko ekitaldietan bezalaxe.

Egindako jarduerak islatzen dituzten eragiketak ez daude aginduzko kontu-hartzailatza publikoari lotuak, eta kontabilitateko egitateak nahiko atzerapen handiaz erregistratzen dira.

2000ko abenduaren 31ko egoeraren balantzeari dagokionez, kontabilitate sistemaren produktu automatikoa da, garbiketa eta analisi prozesurik gabea eta udal ondasunen adskripziorik gabekoa. Beraz, fidagarritasun gutxiko dokumentua da.

Estatutuen 20. artikulua ez da betetzen. Izan ere, artikulua horrek kontrol eta zaintza eginkizun batzuk uzten ditu Udalaren esku hainbat arlotan –ekonomia, kontabilitatea-aurrekontuak eta lan-ferak–, eta udala aurrekontuak eta haien likidazioa onestera mugatzen da.

Laburbilduz, eta **ondorio orokor** gisa, adierazi behar dugu Udalak honako hau egiten duela:

- Ongi kudeatzen ditu bere aurrekontuak administrazio-ikuspuntua batetik, baina beharrezkoa du:

a) Ondasunen inbentarioa gaurkotzea, udalaren jabetzakoak bermatzeko bitarteko gisa.

b) Ibilgetuaren saldoak berrikustea, osaketa behar bezala isla dezaten.

c) Sektore publikoaren kontabilitate plan orokorrean aurreikusitako urteko oroit-idazkia prestatzea.

- Administrazio kontratazioari buruzko araudia zorrozki bete behar du, bereziki kontratazio espedienteen formalizazioaren inguruko alderdiei dagokienez. Halaber, barne kontroleko mekanismoak indartu beharko lituzke, bereziki aholkularitza juridikoa.

- Finantzen ikuspuntutik, epe laburrean egoera zuzena bada ere, epe ertain eta luzerako estimazioek badirudi baliabide berekiak sortzeko gaitasuna akitu litekeela adierazten dutela.; planeamenduan jasotako hirigintzako aurreikuspenak ere ia amaituak daudela kontuan hartuz gero, esandakoa areagotu egiten da, ez baitago udal dermioa zabaltzeko aukera fisikorik. Funtsean, egoera honek honakoak egin daitezela eskatzen du:

a) Udalaren lehentasunezko premien eta horien finantzabideei buruzko proiektzio ekonomiko-finantzarioak.

b) Aplikatzekoa den zerga-presioaren gaineko azterlanak.

c) Zerbitzuen kostuari eta herritarrengan duen eraginari buruzko analisisia.

d) Oinarrizkoak edo nahitaezkoak ez diren zerbitzuak emateari buruzko erabakiak arrazionaltasunez hartzea.

Guztiaren helburua udalaren finantza-bideragarritasuna bermatzea da.

- Erakunde autonomoei dagokienez, beharrezkoa da haien estatutuak osatu eta gaurkotzea, haien benetako autonomia maila agertzeraz eman ez bai eta udalak haien jardueraren gainean erabiltzen dituen kontrola eta zaintza mekanismoak erakutsiz.

Alabaina, ez da ahaztu behar erakunde horien eragiketarak, entitate publikoak direnez gero, kontu hartzailetza publikoari lotuak daudela; horregatik, eginkizun hori benetan egin ahal izateko udalaren

kontu-hartzailetzak prozedurak diseinatu behar ditu.

Halaber, kontabilitateko egungo sistema kudeaketak eskatzen duenerako egokia den aztertu beharko da, eta benetako beharrezan eta kontabilitate publikoaren betekizunen artean oreka aurkitzen saiatu behar da.

Arte Eszenikoen Zentroaren –lehen, auditorioa– lanen egoeraz, bestalde, esan behar da 2000ko martxoaren 30ean lanak adjudikatzeko lehiaketaren baldintzen plegua onartu dela; aurrekontua 335 milioi pezetakoa da, eta txosten hau luzatu den egunerako 327 miloi pezeta daude adjudikaturik. Zuinketa aktaren arabera, obrak 2000ko urriaren 10ean hasi ziren, eta obrak egiteko epea 7 hilabete eta erdikoa zen. Txosten hau egiteko egunean, obrak bukatu gabe daude, eta aurreikusitako exekuzio epea gainditurik dago. Ez dago zentro honen erabilera zehatzaren inguruko azterlanik, eta ez dago zehaztuta nola egingen den kudeaketa, ez eta gastuak finantzatzeko modua ere.

V. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK

Jarraian, Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantzei buruzko egoera-orriak aurkezten ditugu. Txostena baliagarriagoa izan dadin, azalpena honako hauetara mugatuko dugu:

V.1. BARAÑAINGO UDALA

- Gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera.

- Udalaren gastuen aurrekontuaren likidazioa, sailkapen funtzionalaren arabera.

- Udalaren 2000ko abenduaren 31ko egoerari buruzko balantzea.

- Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2000ko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakina.

V.2. ERAKUNDE AUTONOMOAK

- Gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera.

- Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2000ko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakina.

Barañoingo Udaleko aurrekontuaren betetze-maila, 2000-12-31n

dirusarreraren aurrekontuaren betetze-maila

Kapitulua	Hasierako	Alda- ketak	Behin-betiko	Aitorturiko eskubideak	Aitorturiko eskubideak	Kobratua	Kobra- tzeke	Bete- tzearen %	Aitorturiko guztiz- koaren %
	aurre- ikuspena		aurre- ikuspena						
	(pezetak, milakotan)		(euroak, milakotan)(pezetak, milakotan)						
1- Zuzeneko zergak	334.000	0	334.000	447.831	2.692	411.231	36.600	134	23
2- Zeharkako zergak	145.000	0	145.000	152.364	916	151.011	1.353	105	8
3- Tasak eta bestelako dirusarrerak	160.230	3.186	163.416	180.911	1.087	162.012	18.899	111	9
4- Transferentzia arruntak	851.316	0	851.316	865.947	5.204	848.976	16.971	102	45
5- Ondare dirusarrerak	30.700	0	30.700	48.613	292	45.739	2.874	158	3
6- Inbertsio errealen besterentzea	0	0	0	0	0	0	0	0	0
7- Kapital transferentziak	533.000	7.000	540.000	225.268	1.354	159.549	65.719	42	12
8- Finantza-aktiboaren aldaketa	0	229.619	229.619	0	0	0	0	0	0
9- Finantza-pasiboaren aldaketa	0	0	0	0	0	0	0	0	0
dirusarrerak, guztira	2.054.246	239.805	2.294.051	1.920.934	11.545	1.778.518	142.416	84	100

Gastuen aurrekontuaren betetze-maila

Kapitulua	Hasierako	Alda- ketak	Behin-betiko	Aitorturiko obligazioak	Aitorturiko obligazioak	Ordainduta	Ordain- tzeke	Bete- tzearen %	Aitorturiko guztiz- koaren %
	aurre- ikuspena		aurre- ikuspena						
	(pezetak, milakotan)		(euroak, milakotan)(pezetak, milakotan)						
1- Langileen ordainsariak	695.127	0	695.127	639.904	3.846	628.074	11.830	92	44
2- Ondasun arrunt. eta zeb. eros.	458.599	2.092	460.691	358.274	2.153	307.241	51.033	78	25
3- Korrituak	1.225	0	1.225	973	6	973	0	79	0
4- Transferentzia arruntak	121.445	2.496	123.941	110.434	664	77.351	33.083	89	8
6- Inbertsio errealak	713.450	233.217	946.667	288.470	1.734	245.266	43.204	30	20
7- Kapital transferentziak	14.000	2.000	16.000	2.000	12	2.000	0	13	0
8- Finantza-aktiboaren aldaketa	0	0	0	0	0	0	0	0	0
9- Finantza-pasiboaren aldaketa	50.400	0	50.400	50.384	303	50.384	0	100	3
Gastuak, guztira	2.054.246	239.805	2.294.051	1.450.439	8.717	1.311.289	139.150	63	100
Guztira	639.904	358.274	973	110.434	288.470	2.000	0	50.384	1.450.439
	% 44	% 25	% 0	% 8	% 20	% 0	% 0	% 3	% 100

2000ko aurrekontu bateratuaren betetzea, kode funtzional/ekonomikoaren ikuspegitik (pezetak, milakotan)

Fun- tzionala	Deskribapena	Langileria gastuak	Ondasun arruntak eta zerbitzuak	Finantza gastuak	Transfe- rentzia arruntak	Inbersio errealak	Kapital transfe- rentziak	Finantza- aktiboak	Finantza- pasiboak	Aitorturiko betebeharrak, guztira	%/ guz- tizkoa
31	Segurtasun eta babes soziala	243.791	19.035	0	11.931	22	0	0	0	274.779	19
43	Etxebizitza eta Hirigintza	82.267	52.319	0	0	103.773	0	0	0	238.359	16
42	Hezkuntza	60.328	72.485	0	41.591	53.787	0	0	0	228.191	16
45	Kultura	25.188	101.661	0	20.048	29.604	2.000	0	0	178.501	12
12	Administrazio orokora	57.012	34.728	0	1.352	13.797	0	0	0	106.889	7
22	Segurtasun eta babes zibila	93.473	9.218	0	0	3.583	0	0	0	106.274	7
46	Bestelako komunitate- eta gizarte-zerb.	0	5.928	0	11.305	83.888	0	0	0	101.121	7
44	Komunitate-ongizatea	0	48.747	0	22.182	0	0	0	0	70.929	5
01	Zor publikoa	0	0	973	0	0	0	0	50.384	51.357	4
61	Araupetze ekonomikoa	28.183	7.390	0	0	16	0	0	0	35.589	3
32	Gizarte sustapena	31.832	2.808	0	0	0	0	0	0	34.640	2
11	Gobernu-organoak	17.830	2.789	0	2.025	0	0	0	0	22.644	2
41	Osasuna	0	1.166	0	0	0	0	0	0	1.166	0
	Guztira	639.904	358.274	973	110.434	288.470	2.000	0	50.384	1.450.439	
		% 44	% 25	% 0	% 8	% 20	% 0	% 0	% 3	% 100	100

2000ko abenduaren 31ko balantzea

AKTIBOA

Kontuak	Izena	Zenbatekoak (pezetak, milakotan)	Zenbatekoak (euroak, milakotan)
	Ibilgetu materiala	827.158	4.971
202	Eraikinak	601.120	3.613
203	Makineria, instalazioak eta tresneria	20.540	123
204	Garraio elementuak	19.509	117
205	Altzariak	78.212	470
206	Informazio-prozesuetarako ekipiak	24.058	145
209	Instalazio konplexu espezializatuak	83.719	503
	Ibilgetu ez-materiala	12.605	76
215	Aplikazio informatikoak	6.108	37
218	Bestelako ibilgetu ez-materiala	6.497	39
	Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	190.977	1.148
220	Lurra eta ondasun naturalak	20.581	124
221	Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	170.396	1.024
	Zordunak	228.551	1.374
430	Aitorturiko eskubideengatiko zordunak. Indarreko aurrekontua	142.416	856
431	Aitorturiko eskubideengatiko zordunak. Itxitako aurrekontuak	82.830	498
561	Emandako aurrerakin eta maileguak	982	6
566	Aurrekontukoak ez diren dirusarrerak formalizatzea	263	2
558	BEZaren zordunak	26	0
569	Aurrekontuz kanpoko bestelako zordunak	2.034	12
	Kontu finantzarioak	1.358.661	8.166
550	Eragiketak betetzeko emateak	11	0
570	Kutxa	441	3
571	Bankuak eta kreditu erakundeak. Kontu operatiboak	803.768	4.831
572	Bankuak eta kreditu erakundeak. Dirubilk. murrizt. kontuak	4.437	27
573	Bankuak eta kreditu erakundeak. Kontu finantzarioak	550.004	3.306
	Aktiboa, guztira	2.617.952	15.734
	Aktiboko ordena-kontuak	500.561	3.008
062	Garantiako dokumentuak, luzapenak eta zatikatzeak	500.561	3.008
	Aktiboko ordena-kontuak, guztira	500.561	3.008

PASIBOA

Kontuak	Izena	Zenbatekoak (pezetak, milakotan)	Zenbatekoak (euroak, milakotan)
	Ondarea eta erreserbak	1.415.113	8.505
100	Ondarea	141.014	848
130	Aplikatzeko dauden emaitzak	1.274.099	7.657
	Kapital diru-laguntzak	388.975	2.338
145	Erkidego autonomoetakoak	318.734	1.916
147	Enpresa pribatuetakoak	36.484	219
148	Irabazi asmorik gabeko famili edo erakundeetakoak	33.757	203
	Epe luzeko zorrak	64.064	385
160	Epe luzeko maileguak	14.064	85
170	Epe luzeko maileguak, barnekoak	50.000	301
	Epe laburreko zorrak	173.167	1.041
400	Aitortutako betebeharren hartzekodunak. Indarreko aurrekontua	21.340	128
401	Aitortutako betebeharren hartzekodunak. Itxitako aurrekontua	1.894	11
410	Agindutako ordainketengatiko hartzekodunak. Indarreko aurrekontua	117.810	708
411	Agindutako ordainketengatiko hartzekodunak. Itxitako aurrekontua	276	2
420	dirusarrerak itzulteagatiko hartzekodunak	7	0
475	Ogasun publikoa, kontzeptu fiskalengatik hartzekoduna	16.822	101
477	Gizarte Segurantza hartzekoduna	1.662	10
478	Ogasun Publikoa, jasanarazitako BEZA	129	1
510	Jasotako gordailuak	32	0
512	Funtzionarioen gizarte-aurreikuspeneko entitateak	1.159	7
516	Aurrekontuz kanpoko ordainketak formalizatzea	108	1
519	Aurrekontuz kanpoko bestelako hartzekodunak	4.242	25
520	Epe laburreko fidantzak	7.686	46
	Aplikatzeko dauden kontusailak	146	1
554	Aplikatzeko dauden dirusarrerak	134	1
555	Aplikatzeko dauden bestelako kontusailak	12	0
	Ekitaldiko emaitzak	576.487	3.465
890	Ekitaldiko emaitzak	576.487	3.465
	Pasiboa, guztira	2.617.952	15.734
	Pasiboko ordena-kontuak	500.561	3.008
067	Luzaturiko eta zatituriko garantiako agirien gordailugileak	500.561	3.008
	Pasiboko ordena-kontuak, guztira	500.561	3.008

Diruzaintza-gerakinaren egoera

		Zenbatekoak (pezetak, milakotan)	
(+)	Ekitaldi-bukaeran konbratzeke dauden zordunak		145.575
	dirusarreraren aurrekontukoak. Indarreko aurrekontua	142.416	
	dirusarreraren aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	82.830	
	Merkataritza eragiketetakoko	0	
	Beste ente publiko batzuen baliabideetakoak	0	
	Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetakokoak	3.305	
	Ken kobratzen zailak diren saldoak	-82.830	
	Ken behin betiko aplikatzeke dauden eta egin diruen dirusar.	-146	
(-)	Ekitaldi-bukaeran ordaintzeke dauden hartzekodunak		173.156
	Gastuen aurrekontukoak. Indarreko aurrekontua	139.150	
	Gastuen aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	2.171	
	dirusarreraren aurrekontukoak	7	
	Merkataritza eragiketetakoko	0	
	Beste ente publiko batzuen baliabideetakoak	0	
	Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetakokoak	31.839	
	Ken behin betiko aplikatzeke dauden eta egin diren ordaink.	-11	
(+)	Ekitaldiaren bukaeran diruzaintzan diren funts likidoak		1.358.650
	Finantziazio atxikia duten gastuei atxikitako diruzaintza-gerakina		213.700
	Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina		1.117.369
	Diruzaintza-gerakina, guztira		1.331.069
		1.331.069	1.331.069

(*) Diruzaintzako funts likidoetan 2000ko abenduaren 31n erabili gabe zegoen kreditu baten 50 milioi pezeta daude sartuta.

Lagunak Udal Zerbitzua

2000ko gastuen aurrekontuaren betetzea

Kap. Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko obligazioak	Aitorturiko obligazioak	Ordain-tzeke	Betetzearen %
1. Langileen ordainsariak	74.170	600	74.770	74.714	449	2.592	100
2. Ondasun arrunt. eta zerb. eros.	100.211	-600	99.611	99.231	596	15.891	100
4. Transferentzia arruntak	4.329	0	4.329	3.407	20	502	79
6. Inbertsio errealak	0	12.789	12.789	5.427	33	4.337	42
Gastuak, guztira	178.710	12.789	191.499	182.779	1.099	23.332	95

2000ko dirusarreraren aurrekontuaren betetzea

Kap. Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko eskubideak	Aitorturiko eskubideak	Kobratzeke	Betetzearen %
3. Tasak eta bestelako dirusar.	166.169	0	166.169	163.342	982	703	98
4. Transfer. arruntak	7.271	0	7.271	9.214	55	3.401	127
5. Ondare dirusarrerak	5.270	0	5.270	4.899	29	181	93
6. Kapital transferentziak	0	2.000	2.000	2.000	12	0	100
7. Finantza-aktiboak	0	10.789	10.789	0	0	0	0
dirusarrerak, guztira	178.710	12.789	191.499	179.455	1.079	4.285	94

Diruzaintza-gerakinaren egoera

		Zenbatekoa (pezetak, milakotan)
(+)	Ekitaldi-bukaeran kobratzeke dauden zordunak	4.732
	dirusarreraren aurrekontukoak. Indarreko aurrekontua	4.285
	dirusarreraren aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	0
	Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetakoa	447
	Ken aplikatzeke dauden eta egin diren dirusarrerak	0
	Ken kobratzen zailak diren saldoak	0
(-)	Ekitaldi-bukaeran ordaintzeke dauden hartzekodunak	25.608
	Gastuen aurrekontukoak. Indarreko aurrekontua	23.332
	Gastuen aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	11
	Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetakoa	2.275
(+)	Diruzaintzan diren funts likidoak	28.945
	Finantzazio atxikia duten gastuei atxikitako diruzaintza-gerakina	2.000
	Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	6.070
	Diruzaintza-gerakina, guztira	8.069

Musika eskola

2000ko gastuen aurrekontuaren kitapena

Kap. Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko obligazioak	Aitorturiko obligazioak	Ordaintzeke	Betetzearen %
1. Langileen ordainsariak	94.744	0	94.744	93.044	559	1.851	98
2. Ondasun arrunt. eta zerb. gast.	10.871	783	11.654	10.918	66	1.799	94
3. Gastu finantzarioak	25	0	25	0	0	0	0
4. Transferentzia arruntak	0	0	0	0	0	0	0
6. Inbertsio errealak	5.410	1.142	6.552	4.456	27	2.907	68
Gastuak, guztira	111.050	1.925	112.975	108.418	652	6.557	96

2000ko dirusarreraren aurrekontuaren kitapena

Kap. Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko eskubideak	Aitorturiko eskubideak	Kobratzeke	Betetzearen %
3. Tasak eta bestelako dirusar.	40.300	0	40.300	41.797	251	1.002	104
4. Transferentzia arruntak	70.250	0	70.250	68.405	411	12.373	97
5. Ondare dirusarrerak	500	0	500	745	4	0	149
7. Kapital transferentziak	0	0	0	0	0	0	0
8. Finantza aktiboak	0	1.925	1.925	0	0	0	0
dirusarrerak, guztira	111.050	1.925	112.975	110.947	667	13.375	98

Diruzaintza-gerakinaren egoera

	Zenbatekoak (pezetak, milakotan)	
(+) Ekitaldi-bukaeran kobratzeke dauden zordunak		15.923
dirusarreraren aurrekontukoak. Indarreko aurrekontua	13.375	
dirusarreraren aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	46	
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketekoak	2.548	
Ken aplikatzeke dauden eta egin diren dirusarrerak	0	
Ken kobratzen zailak diren saldoak	-46	
(-) Ekitaldi-bukaeran ordaintzeke dauden hartzekodunak		9.431
Gastuen aurrekontukoak pres. corriente	6.557	
Gastuen aurrekontukoak pres. cerrados	9	
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketekoak	2.865	
Ken aplikatzeke dauden eta egin diren ordainketak	0	
(+) Diruzaintzan diren funts likidoak		13.373
Finantziario atxikia duen atxikitako diruzaintza-gerakina		0
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina		19.865
Diruzaintza-gerakina, guztira		19.865

VI. BARAÑAINGO UDALARI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK**VI.1. 2000KO AURREKONTUAREN BETE-TZEARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK**

Gastu eta dirusarreraren 2000ko aurrekontuak 2.054 milioiko hasierako kredituak agertzen ditu; hasierako aurreikuspenak horiek baziren ere, zenbait aurrekontu-aldaketa egin dira, gehienak aurreko ekitaldietako gerakina eransteak. Behin betiko aurrekontuak, beraz, 2.294 milioi pezeta egiten du

Aitorturiko obligazioak 1.450 milioikoak dira, eta horien betetze-maila ehuneko 63koa da; kapitulutan, aipatu behar dugu langileria gastuena, ehuneko 92ko betetze-mailarekin, ondasun arrunt eta inbertsioetako gastuena, ehuneko 78ko betetze-mailarekin, eta inbertsioena, ehuneko 30ekoa-rekin –hau da, aurreikusitakoa baino 659 milioi pezeta gutxiago.

Ehunekoak erabilia, honako hau da osaera:

Gastuak	Ehunekoak
Funtzionamendua	77
Inbertsioa	20
Finantza-zama	3
Guztira	100

Ikus daitekeenez, gastu-elementurik garrantzitsuena funtzionamendu-gastuek osatzen dutena da –langileria, ondasunak eta transferentzia arruntak–, Udalak gastatzen dituen 100 pezetatik 77 bereganatzen baititu; langileriarako, zehazki, 44 pezeta erabiltzen dira. Finantza-zamak ehuneko 3, eskas, hartzen du 2000n, batez ere amortizazioengatik.

Langileriar dagokionez, 2000ko abenduaren 31n honako langile hauek ziharduten lanean udalean eta haren erakunde autonomoetan:

Izaera	Zenbatekoa
Behin-behinekoak	4
Funtzionarioak	21
Lan-kontratudun finkoak	71
Aldi baterako lan-kontratudunak	13
Guztira	109

Ikus daitekeenez, lanpostuen ehuneko 65 lan-kontratudun finkoenak dira; ehuneko 77ra igotzen da, berriz, proportzioa lanpostu finkoekiko soilik egiten bada.

Funtzionarioak hauexek dira: idazkaria, kontuhartzailea, diruzaina eta udaltzainak; behin-behinekoak, alkatea, udaltzain burua, giza baliabideen

zuzendaria eta arkitekto teknikoa. Aldi baterako langileetatik 11 gizarte enpleguak dira.

Zinegotzien lansariek 18 milioi egiten dute gutzira. Alkatearen lansari guztiei PFEZa eta haren atxikipenak aplikatu behar zaizkie. Zinegotzientzako dietak erabat salbuetsirik daude, osoko bilkurak hala erabakita.

Osoko bilkurak 2000ko otsailaren 16an hartutako erabakiaren bidez erabateko dedikazioagatik lansaria jasotzen duten zinegotzien ordainsarien ehuneko 30 PFEZa aplikatuzetik salbuetsirik dago, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak egin zuen interpretazioaren arabera.

Era berean, nabarmendu beharrekoa da Funtzionarioen Montepioak 125 milioi pezetako kostua ekarri diola Udalarari 2000n; hau da, langileria gastu osoaren ehuneko 20.

Aitorturiko eskubideei dagokienez, 1.921 milioikoak dira, ehuneko 84ko betetze-mailarekin. dirusarreraren betetze maila eskasa azaltzeko, kon-tuan hartu behar da behin betiko aurrekontuak 295 milioi pezetako transferentzia bat aurreikus-ten zuela saltoki handi bat eraikitzeko.

Kapituluetan, zuzeneko zergak, zeharkako zergak, tasak, ondareko dirusarrerak eta transferentzia arruntak aipatu behar dira, ehuneko 100etik gorako portzentajeekin. Kapital transferentziak dira ehuneko 100 baino exekuzio maila txikiagoa erakusten dutenak, hain zuzen ere ehuneko 42.

Ehunekoen araberrako osaerari dagokionez:

dirusarrerak	Ehunekoa
Tributuen bidezkoak	40
Transferentzien bidezkoak	57
Ondare bidezkoak	3
Gutzira	100

Alegia, 2000ko aurrekontu bateratuaren finantzabide nagusia transferentziek, bereziki, arruntek osaturikoa da, –aitorturiko 100 pezetatik 57 finantzabide horretatik datoz–; tributu bidezko dirusarrerak, ordea, ehuneko 40 egiten dute.

Ondoko laukian jasotzen dira tributu-figura nagusiak eta horien zenbatekoa, 2000n aitorturikoa (pezetak, milioitan):

Zerga mota	Zenbatekoa
Hirilur kontribuzioa	214
I. Eraikuntza, instalazio eta obrak	152
I. Lursailen plusbalia	108
I. Ibilgailuen zirkulazioa	78

Hirigintza lizentziak	89
I. Jarduera ekonomikoak	25
Telefonikaren kanona	20
Gutzira	666

Adierazitako tributu figurek 2000ko ekitaldian tributu-izaerako dirusarrerengatik aitorturiko esku-bideen ehuneko 92 egiten dute. Nabarmen da hirilur kontribuzioaren garrantzi berezia, gainerako tributu-figurak gainditzen baititu: 2000n 1999ko ekitaldiaren antzerako kopuru bat bildu zen. Bestalde, azpimarratzekoa da eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergarengatik eta lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergarengatik eta hirigintza lizentziengatik aitorturiko eskubideen hazkunde handia, ekitaldi honetan 300 etxebizitza libre eta babes ofizialeko hasi baitira eraikitzen.

2000ko betetze-egoerak 470 milioiko aurrekontu-superabita erakusten du. Emaiza hori aitorturiko eskubideen eta obligazioen arteko aldearen ondorioa da.

2000ko abenduaren 31n, ordaintzeko dauden zenbatekoek –gastuen erresultak– 141 milioi pezeta egiten dute, eta horietatik bi milioi pezeta aurreko ekitaldietatik heldu dira. Kobratzeko dauden zenbatekoek –dirusarreraren erresultak– 225 milioi pezeta egiten dute, horietatik ehuneko 37 aurreko ekitaldietakoa da.

2000ko abenduaren 31n, diruzaintza-gerakina 1.331 milioi pezetakoa da. Kopuru hori honako honen emaitza da: ordaintzeke dauden 173 milioi pezetako zorrak, kobratzeke dauden 145 milioi pezetako dirusarrerak eta 1.359 milioi pezetako funts likido positiboak. Itxitako aurrekontuetatik heldu diren eta kobratzeko zeuden kopuruak –83 milioi pezeta– kobratzen zailtzat jotzen dira.

2000ko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakinetik, 214 milioi pezeta diruzaintza-gerakin atxikia da; finantzatu beharreko gastuak, nagusiki, Arte Eszenikoen Zentroa eraikitzeko obrenak dira; gastu horiek 2001eko ekitaldian aitortuko dira. 2000n zehar, Nafarroako Gobernutik obra horiek finantzatzeko heldu diren 201 milioi pezetako transferentzia erregistratu dira.

Azkenik, ondoko taulan erakusten da, ehunekoak erabiliz, 2000ko gastu-aurrekontuaren betetzea, eginkizun ezberdinen arabera sailkatua, eta 1999koarekin alderatua.

Funtzioa	Deskribapena	2000	1999
31	Segurtasuna eta babes soziala	19	21
43	Extebicitza eta Hirigintza	16	16
42	Hezkuntza	16	15

45	Kultura	12	15
12	Administrazio orokorra	7	8
22	Segurtasuna eta babes zibila	7	7
46	Bestelako komunitate eta gizarte zerbitzuak	7	2
44	Komunitatearen ongizatea	5	5
01	Zor publikoa	4	4
61	Araubide ekonomikoa	3	3
32	Gizarte sustapena	2	3
11	Gobernu organoak	2	1
Guztira		100	100

Horien azterketa egin ondoren, hauxe azpimarratuko dugu:

- 2000n aitorturiko obligazioen ehuneko 19 "segurtasun eta gizarte babesa" eginkizunerako erabili zen; haren ondotik "etxebizitza eta hirigintza" eta "hezkuntza" —ehuneko 16- eta "kultura" -ehuneko 12-. Gainerako eginkizunen artean banatzen da aitorturiko obligazioen gainerako ehuneko 37.

Eginkizun multzo garrantzitsuenen osaketa ekonomikoa dagokionez, aipatu beharra dago "segurtasun eta gizarte babesa" izenekoan gastuen ehuneko 89 langileriarenak direla; "etxebizitza eta hirigintza" arloan gastu handienak langileriarenak eta inbertsio errealeak dira, ehuneko 44 eta 34rekin, hurrenez hurren, eta azkenik, "kultura" eta "hezkuntza" multzoetan, gastu handienak ondasun eta zerbitzu arruntenak dira, ehuneko 32 eta 57rekin, hurrenez hurren.

- Ehunekoak aurreko ekitaldiko antzekoak dira, baina azpimarratzekoa da gora egin dutela pixka bat hezkuntzari eta kulturari dagozkienak; antzeko proportzioan, behera egin dute, aldiz, segurtasun eta gizarte babesari eta administrazio orokorrari dagozkienak.

VI.2. FINANTZA-EGOERA 2000KO ABENDUAREN 31N.

2000n Udalak dauzkan ratio edo adierazleak honakoak dira, 1999ko datuekin konparatuta:

Adierazleak	2000	1999
Aurrekontu-superabita/defizita (pezetak, milioitan)	470	145
Bizt. bakoitzeko dirusarrerak (pezetak)	88.687	65.658
Biztanle bakoitzeko gastuak (pezetak)	66.964	58.790
Bizt. bakoitzeko finantza-karga (pezetak)	2.371	2.433
Bizt. bakoitzeko tributu-dirusarrerak (pezetak)	36.063	23.927
Kobrantsen betetzea (ehunekoa)	93	90
Ordainketen betetzea (ehunekoa)	90	87

Zorpetze-maila (ehunekoa)	3	4
Zorpetze-muga (ehunekoa)	34	26
Aurrezpen garbia (ehunekoa)	31	22
Langileria-indizea (ehunekoa)	44	47
Inbertsio-indizea (ehunekoa)	20	14
Dirulaguntzekiko menpekotasuna (ehunekoa)	57	61

- 2000ko ekitaldian 470 milioi pezetakoa da aurrekontu-superabita; 1999an, berriz, superabita 145 milioikoa izan zen.

- Aitorturiko eskubideak ehuneko 38 igo dira, 1999ko ekitaldikoekin alderaturik, batez ere tributu-dirusarrerak 274 milioi pezeta eta kapital transferentziak 200 milioi pezeta igo direlako.

- Aitorturiko obligazioek ehuneko 16 egin dute gora; hori, aitorturiko eskubideen gehikuntzarekin alderatuz gero, erraz azal daiteke aurrekontu superabitaren gehikuntza. Biztanle bakoitzeko gastuak 1999an 58.790 pezeta izatetik 2000n 66.964 pezeta izatera pasatu dira.

- Tributuen bidezko dirusarrerak, biztanle bakoitzeko, ehuneko 50 igo dira, eta 2000n 36.063 pezetakoak dira. Arrazoiak bat izan daitezke tributu kontzeptu guztien bidezko dirusarrek gora egin izana, eta bereziki eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga, lurren balio gehikuntzari buruzko zerga eta hirigintza lizentziak direla-eta 2000n aitorturiko eskubideak gora egin izana, urte horretan 300 etxebizitza libre eta babes ofizialeko eraikitzen hasi baita.

- Biztanle bakoitzeko finantza-zama ehuneko 2,5 jaitsi da aurreko ekitaldiarekiko, batez ere Nafarroako Aurrezki Kutxarekin dagoen kredituaren muga jaitsi egin delako. Muga hori, 2000ko abenduaren 31n 50 milioi pezetakoa da; 1999ko abenduaren 31n, ordea, 100 milioi pezetakoa zen.

- Zorpetze mailak puntu bat behera egin du, eta 2000n ehuneko 3an geratu da; zorpetze mailak, bitartean, ehuneko 8 puntutan egin du gora. Bide beretik, ikus daiteke aurrezki garbiaren ehuneko 22 izatetik 31 izatera pasatu dela.

- Langileriako gastuek gastu guztien ehuneko 44 osatzen dute, 1999ko adierazlea baino sei puntu txikiagoa. Inbertsio adierazlea ehuneko 20koa izan da, aurreko ekitaldiko baino hiru puntu handiagoa.

- Aitorturiko eskubideak aitorturiko obligazioak baino gehiago handitu izanak aurrezki gordina eta garbia handitzea eragin dute, finantza-zama aurreko ekitaldiaren parekoa delako, ez baita maileru berririk eskatu eta 1999ko abenduaren 31n bizirik zeudenak direlako, nahiz eta xedapen horren muga 50 milioi pezetakoa izan.

• Dirulaguntzekiko menpekotasuna handia da oraindik baina 1999koa baino txikiagoa. dirusarrerren ehuneko 57 inguru dirulaguntzen bitartez jasotzen da; transferentzia arruntek dirusarrerren ehuneko 45 egiten dute, eta gainerako kapital transferentziak ehuneko 12 dira.

2000ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokionez, hona azalpena (pezetak, milioitan):

Adierazleak	2000
Diruzaintza-gerakina	1.331
Epe luzeko zorra	14

Hau da, gastu orokorretarako diruzaintza gerakinak aise betetzen ditu epe luzerako zorretik heldu diren finantza premiak eta garrantzizko finantzabidea da 2001eko aurrekonturako.

Finantzazio atxikia duten gastuei atxikitako diruzaintza gerakina, 214 milioi pezetakoa, ikastetxe publikoetako eta Arte Eszenikoen Zentroko lanengatik eginen diren gastuei atxikitako dirusarrera 2000n aitortuei dagokie. Lan horiek 2001eko ekitaldian egitea dago aurreikusirik.

Bestalde, epe luzerako zorra honakoek osatzen dute: Nafarroako Gobernuak 1989an emandako mailegu bat, ehuneko 5eko interes tasarekin; 2000ko abenduaren 31n 14 milioi pezeta zeuden ordaintzeko, 15 urte-kuotetan banaturik. Horien helburua lokalen erosketa finantzatzea zen.

2000ko abenduaren 31n, zenbait zor dago kreditu entitateekin, epe motzerako; erabili gabekoa izan eta 2001ean epe muga duen kreditu bati dagozkio. Haren muga 2000ko abenduaren 31n da, eta 50 milioi pezetakoa da. Kreditu hori aparteko aurrekontuak finantzatzeko eskatu zen. 1991n eman zen, eta hasierako interesa ehuneko 15,5ekoa zen -1996an birnegoziatu eta mibor + 0,5-.

Aurreko datuek arazorik gabeko finantza egoera erakusten dute.

Azkenik, hurrengo taulan, Barañaini buruzko 1998ko informazioa eta Nafarroan biztanle-tarte berean -10.000tik 50.000ra bitarte- dauden beste udal batzuetako batez bestekoa⁽¹⁾ alderatuta agertzen dira, zenbait ratori dagokionez:

Ratioak	Nafarroako T.E. 1998 (10.000-50.000 bizt.)	Barañain 2000
Gastu arrunta/biztanle	116.110	66.964
dirusarrera arrunta /bizt.	122.833	88.687
Zerga dirusarrera/biztanle	46.733	36.063
Zorpetze-muga	17	34
Zorpetze-maila	7	3
Zorpetze-ahalmena	10	31

Alderaketa horrek dituen mugak kontuan izanik⁽²⁾, Barañainen kasuan, zentsua hirikoa izanik ia osotara, biztanleen gastuak tarte horretakoen erdia baino gehixeagokoak dira eta dirusarrerak ehuneko 38 gehiago, baina zorpetze maila txikiagoa dute.

Ondorio gisa esan beharra dago Barañaingo Udalak 2000ko abenduaren 31n finantza egoera egokia duela, baina finantza akiduraren zantzuekin, urbanizazio lanak amaituta zabaltzeko ahalmena oso txikia delako, etxebizitzaren eraikuntzari nola eragin ekonomikoa duten bestelako zerbitzu edo jarduerari dagokienez.

Egoera honek, gure iritziz, neurri hauek hartzea eskatuko du:

- *Tributu baliabideak eskuratzeko gaitasunaren gaineko azterlan sakona egitea, tributu arloko egungo legeriak toki entitateetarako aurreikusten dituen mekanismoak eta aukerak kontuan harturik.*

- *Zerbitzu publikoei, batez ere nahitaezkoak ez direnei, aplikaturiko egungo tasa eta prezioen kostua noraino ordaintzen duten aztertzea.*

- *Plan ekonomiko-finantzario bat garatzea, alderdi hauek aztertzeko: emandako zerbitzuak, eskaria eta haren finantzazioa, beharrezkoak diren inbertsioak eta horien lehentasunak eta gastuei eusteko eta baliabideak lortzeko politikak.*

- *Bizilagunak informatu eta jabeazteko kanpainak egitea, jakin dezaten funtsean zein diren Udalaren finantza beharrezkoak, zerbitzu gehiago emateari edo jadanik daudenak handitzeari dagozkionez.*

Neurri horiek hartzeak saihestuko luke, hein batean behintzat, Nafarroako Gobernuaren transferentzien bidezko diru sarrerekiko mendetasun gero eta handiagoa, eta Udalari finantza autonomo-

(1) *Datu hauek Toki Administrazioiko Departamentuak emandakoak dira, eta Ganbara honek Toki Sektore Publikoari buruzko txostenean eman zituen argitara.*

(2) *Ondokoak eduki behar dira gogoan, batez ere: alde batetik, zerbitzu publikoak emateko modu ezberdinak eta zerbitzu horien kalitatea; bestetik, ekitaldi bakoitzeko aurrekontuen eragin koiunturalak.*

mia handiagoa emateko bide izan liteke. Horrek guztiak Udalaren bideragarritasun finantzarioa bermatzea izanen luke azken helburu.

VI.3. GORABEHERAK

Udalak emandako informazioaren arabera, honako hauek dira ebazteke dauden errekurtsio nagusiak:

- 1110/00 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Administrazioarekiko Auzietako Salan, 1999ko azaroaren 11n Riocenter enpresaren eta Udalaren arteko hirigintza hitzarmena onesteko harturiko erabakien kontra.

- 696/00 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Administrazioarekiko Auzietako Salan, HAPOn UO-20aren S1 eta S2 sektoreetan aldaketa puntual batzuk egiteko behin betiko onespenerari Nafarroako Gobernuak emandako ezezkoaren kontra.

Txosten hau egin den unean, tributuen arloko ikuskatze-epeen barrenean daude Udalak deklaritzen dituen zerga guztiak.

VI.4. ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOA

Atal hau banatu egin da, alde batetik, hornidurak erosi eta zerbitzuak emateari buruzko hainbat puntutan, eta, bestetik, inbertsioetan.

VI.4.1. Hornidurak erostea eta zerbitzuak ematea

Egindako lanetik, ondokoak azpimarratu behar ditugu:

Helduentzako tailer kulturalak garatzeko zerbitzuen kontratazioa

Espedientea aztertzean atzemandako akats nagusiak hauexek dira:

a) Kontratazio mahaia ez da eratu behar diren kideen kopuruarekin, hain zuzen ere laurekin.

b) Kontratua lege ezarritako epetik kanpo egin da

Arte Eszenikoen Zentroa berri eta bukatzeko proiektuko obraren zuzendaritza kontratatzea

Espedientea aztertzean atzemandako akats nagusiak hauexek dira:

a) Espedientean ez da ageri behar den zerbitzuen alde aurretiko txostena, kontratazioari buruzkoa.

b) Kontratua lege ezarritako epetik kanpo egin da.

c) Behin betiko fidantza ez da ordaindu kontratua egin baino lehen.

Ondoren, beste gai batzuk aipatzen dira, Udalak jasotako zerbitzuen gaineko frogak egitean agerian gelditu baitira:

- Lan-kontratudunen nominak egiten dituen kanpoko aholkularitza-bulegoarekin dagoen harremanari buruzko dokumenturik ez dago oraindik kasuan kasuko kontratuan.

Aurreko ekitaldian bezala, harreman horiek kontratuetan formalizatzea da gure gomendioa.

- Alaitz Ikastetxe Publikoaren garbiketa zerbitzuen adjudikazioa prozedura negoziatuaz egin zen, eta 10 milioi pezetatan adjudikatu zen; kopuru horrek halako adjudikazioetarako ezarritako muga gainditzen zuen. Aurreko ekitaldian gomendatutakoa gorabehera, kontratua 1998 eta 1999. urteetarako eta 2000. urterako ere luzatu da. Lizitazio prozedura 2001eko ekitaldian hasi da.

Kontuen Ganbara honen gomendioak betez, erosketen kudeaketarako prozedura normalizatu aplikatzen da; halere, egin dugun laginketatik gomendio hauek azpimarratu nahi ditugu:

- *Espedienteen prestaketa eta tramitazioa arduradun bakar batengan zentralizaturik egon behar dira.*

- *Jarduketa bati buruzko dokumentazioa kasuan kasuko espedientean artxibatu beharko da, eta espedientea osorik aurkeztu.*

- *Espedienteen tramitazioaren fase bakoitza lege ezarritako epeetan egin behar da.*

VI.4.2. Inbertsioak

Azterturiko inbertsioetatik aipatu behar dugu:

Arte Eszenikoen Zentroko obrak berri eta bukatzea

Obra horren datu nagusi gisa, ondokoak azpimarratu behar ditugu:

Adjudikazio prozedura	Lehiaketa
Lizitazioaren zenbatekoa (pezetak, milioitan)	335
Adjudikazioaren zenbatekoa (pezetak, milioitan)	327
Adjudikazioa/lizitazioa, aldea, %	(2,4)
Amaierako ziurtapenaren zenbatekoa (pezetak, milioitan).	Bukatu gabeko obra

Obra hau 2000ko uztailaren 27an adjudikatu zaio, lehiaketa bidez, aurkeztutako eskaintzetako bati. Obren exekuzioa 2000ko urriaren 10ean izan da; zazpi hilabeteko exekuzio epe bat ezarri da.

Nafarroako Gobernuak 201 milioi pezetako gehieneko dirulaguntza eman dio udalari, hain zuzen ere lizitazio aurrekontuaren ehuneko 60. Zenbateko hori aitorturiko eskubide gisa erregistratu da 2000ko ekitaldian, eta kontuan hartu da, finantzaketaren desbideraketa positibo gisa, ekitaldiko aurrekontuaren emaitza kalkulaterakoan. 2000ko abenduaren 31n, kobratzeko dago emandako zenbatekoaren ehuneko 25; diru kopuru hori obra ziurtapenak eta inbertsioari dagozkion gastuen justifikazioa aurkezterakoan ordainduko da.

Espedientearen tramitazioan antzemandako ez betetzeak:

a) Espedientean ez da jaso adjudikazioaren emaitza gainerako lizitatuak jakinarazi zaien.

b) Obraren adjudikazioa legez ezarritako epeaz kanpo argitaratu da NAOn.

c) Kontratua legez ezarritako epeaz kanpo egin da.

d) Behin betiko fidantza ez da kontratua formalizatu aurretik ordaindu.

e) Kontratua egiten denetik zuinketa akta egin bitartean dagoen hilabeteko epe gehienekoa gainditu egin da, atzerapen hori justifikatu gabe.

Sahatsak Ikastetxe Publikoko komunak berri-tzeko obrak

Obraren datu nagusi gisa, ondokoak azpimarratu nahi ditugu:

Adjudikazio prozedura	Lehiaketa
Lizitazioaren zenbatekoa (pezetak, milioitan)	23,8
Adjudikazioaren zenbatekoa (pezetak, milioitan)	23,6
Adjudikazioa/lizitazioa aldea, %	(0,8%)
Amaierako ziurtapenaren zenbatekoa (pezetak, milioitan)	Bukatu gabeko obra

Obra hau 2000ko abenduaren 27an adjudikatu zaio, lehiaketa bidez, aurkeztutako eskaintza bakarrari. Obrak 2001eko otsailaren 23an hasi dira; 2 hilabeteko epea dago, baldintza administratiboen pleguan ezarritakoaren arabera.

Espedientea presako bidetik tramitatu zen, obrak ekitaldia itxi baino lehen hasi behar zirelako, hori izaki Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza bat jasotzeko alde aurretiko baldintza; dirulaguntza hori ekitaldiaren aurrekontu-likidazioan eman eta erregistratuta dago, eta 10 milioi pezeta egiten du. 2000ko abenduaren 31n, dirulaguntza osoa kobratzeko dago; obra ziurtapenak aurkezte-arekin eta inbertsioarekin gastuak justifikatu ondoren ordainduko da.

Espedientearen tramitazioan atzemandako ez-betetzeak:

a) Ez da ageri obraren adjudikazioa NAOn argitaratu den.

b) Kontratua legez ezarritako epeaz kanpo formalizatu da.

c) Behin betiko fidantza ez da ordaindu kontratua egin baino lehen.

Horren guztiaren **ondorioz**, ikuskatutako laginari buruzko laburpen orokor gisa, Ganbera honen iritziz hobekuntza gertatu da arlo horretan, baina Udalari gogorarazi nahi dio beharrezkoa dela administrazio kontratazioari buruzko arauak zorrotz betetzea.

Era berean, komenigarritzat jotzen dugu ondoko neurri hauek hartzea munta ekonomiko handi-goko lanetarako:

- *Indarra duen legeria aplikatzea kontratazio prozesuan eta espedientearen tramitazioan. Komeniko litzateke espediente bakoitzari buruzko informazioa zentralizatzea.*

- *Urte anitzeko gastuen eta finantzazio atxikia dutenen kontabilitate modulua garatzea.*

- *Lizitazio aurrekontu egoki eta errealistak prestatzea, ahalik eta eskaintza gehien aurkez daitezkeen eta adjudikazio prezioak txikiagoak izateko.*

VI.5. BESTELAKO KUDEAKETA-GOMENDIO-AK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Ganbera honen aburuz Udalak jarraitu behar dituen gomendio nagusiak, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate-eta barne-kontrolen sistemak hobetzeko.

VI.5.1. Antolamendu orokorra.

- *Indardun plantillaren osaketa eta neurriak aztertzea, langile guztiek eta bereziki beheko mailakoen egiaz betetzen dituzten lanekiko eta dauzkaten egungo beharrekiko egokia den egiaz-tatzeko.*

- *Barne Araubideari buruzko Erregelamendua-ren zirriborroa taxutu eta onestea. Hartan, Udala-ren organo exekutiboen eskumenak finkatu eta berezi beharko dira.*

VI.5.2. Inbentarioa-lbilgetua

- *Udal inbentarioa gaurkotzea eta onestea, 1992an eginikoa ez baitzen onetsia izan, ezta ondoren gaurkotua ere.*

- *Udal inbentarioa etengabe gaurkotzea eta kontabilitatearekin lotua egotea ahalbidetuko duten prozedurak taxutu eta aplikatzea.*

- *Altak eta bajak kontabilizatzeko prozedurak definitu eta ezartzea, eta ibilgetuaren dokumenta - zioa artxibatzea kontu horiei aplikatzekoak zaiz - kien kontabilitate-irizpideei jarraituz.*

- *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak berrikusi eta depuratzea, behar bezala azal ditza - ten Udalaren ondasunak.*

- *Udal ondasunen eskrituratze eta erregistratze prozesua osatzea.*

- *Udalaren jabetzakoak diren lokal eta etxabe - en erabilgarritasuna eta errentagarritasuna azter - tzea.*

VI.5.3. Aurrekontuen egoera-orriak

Hona gomendioak:

- *Kontuen Batzorde Bereziak Kontu Orokor Bakarra legez ezarritako epean onestea.*

- *Aurrekontua kasuan kasuko ekitaldia hasi baino lehen onestea.*

- *Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrean aurreikusitako urteko oroit-idazkia egitea.*

VI.5.4. Zordunak-Agentzia Exekutiboa

- *Agente exekutiboekin dagoen harremana kasuan kasuko kontratuan dokumentatzea, eta behar den fidantza ordain dadila eskatzea.*

- *Zorrak agente exekutiboeri eskualdatzeko, egungo epeak edo aldiak baino laburragoak ezar - tzea, hau da, kasuan kasuko erroldak atera ondo - ko urteko apirila edo maiatzean.*

VI.5.5. Langileria

- *Plantilla organikoa aplikatu behar den ekital - diaren hasiera baino lehen onestea.*

- *Lan-kontratudunen nominak eta kontratuak kanpoan egiteari eustea komeni den aztertzea, batez ere kontuan izanda giza baliabideetarako departamentu bat sortu dela.*

VI.5.6. Tributuen bidezko dirusarrerak, tasak eta prezio publikoak

- *Ordenantzan onetsitako prezioak zehatz - mehatz aplikatzea eta ordenantzak aplikatu beha - rreko aurrekontu ekitaldiko lehen eguna baino lehen onestea behin betikoz Toki Administrazioari buruzko 6/90 Legearekin bat.*

VI.6. HIRIGINTZA

Barañainek 1982tik du Hiri Antolamendurako Plan Orokor bat. Azken berrikuspena 1991n egina da. Berrikuspenak 8 urtean behin egin beharko lirakeenez, 1999. urtea zen beste berrikuspen bati ekiteko unea, baina ez da hala egin.

2000n zehar ez da ez HAPOn aldaketa puntualerako espedienterik, ez xehetasun azterlanik ez lursailak berrantolatzeke proiekturik hasi.

1999an HAPOn aldaketa puntualerako espediente bati eman zaio hasiera, UO-20 unitatearen, S1 eta S2 sektoreen eta Riocenter, S.L.ren eta Udalaren arteko Hirigintza Hitzarmenaren inguruan. Espediente hori behin betikoz onesteko zain dago.

Udalak ez du eratu lurzorua udal ondarea.

VI.7. EUROA SARTZEARI BURUZKO GOGO-ETAK

Udalak ongi ezagutzen ditu euroa sartzeak udal jarduerarako izan ditzakeen arriskuak.

Alderdi hau aplikazio informatikoen hornitzaile-arekin batera aztertzen ari da; beraz, Udalak uste du arrisku horretatik ez dela etorriko udal jardue- ran nabarmen eragin lukeen egoerarik.

VII. ERAKUNDE AUTONOMOAK

VII.1. "LAGUNAK" UDALAREN KIROL ZERBI-TZUA

2000n, "Lagunak" Udalaren Kirol Zerbitzuak 183 milioi pezetako aitorturiko obligazioak ditu eta 172 milioi pezetako eskubideak. Ondoko tauletan azaltzen ditugu zenbateko horiek, jatorri ekonomikoaren arabera sailkatuz:

(pezetak, milioitan)

dirusarrerak	Zenbatekoa	Ehunekoak
Kirol zerbitzuak	161	90
Bestelako dirusarrera berekiak	2	1
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak	4	2
Barañaingo Udalaren dirulaguntzak	2	1
Enpresa pribatuen dirulaguntzak	10	6
Guztira	179	100

(pezetak, milioitan)

Gastuak	Zenbatekoa	Ehunekoak
Langileria	75	41
Funtzionamendua eta mantentze-lanak	103	56
Inbersioak	5	3
Guztira	183	100

dirusarreretan, Zerbitzuaren finantza autonomia handia dela ikusten da; izan ere, ehuneko 90 zerbitzuko jarduerak sortua da. Bestalde, nabarmendu behar da udalaren finantza ekarpena txikia dela.

Gastuei dagokienez, azpimarratu nahi dugu funtzionamendu- eta mantentze-gastuen garrantzia, kirol instalazioetan ohikoa den bezala. Inbertsioei buruz, berriz, esan beharra dago Udalari dagokiola aparteko inbertsioak finantzatu, zuzendu eta betetzea, zerbitzuak instalazioen ohiko funtzionamendukoak bere gain hartzen baititu.

Langileei dagokienez, haien kopurua –kudeatzailea barne– ondoko taulan azaldu dugu; aldizkako lan- kontratudun finkoak uda garaian aritzen dira.

Langileak	Kopurua
Finkoak	15
Aldizkako finkoak	4
Guztira	19

Langile horietatik, kudeatzailea eta administrari-laguntzailea administrazio eta kontabilitateko lanetan aritzen dira.

Ondotik, kudeaketarako gomendio batzuk zehazten ditugu; horiek aplikatzea egokitzat jotzen dugu elkartearen barne-kontrolako sistemak hobetzeko:

- *Estatutuen aldaketa Udalaren osoko bilkurak onetsi behar du, erakunde autonomoaren zuzendaritza batzordeak onetsi ondotik. Era berean, aurrekontuaren aldaketak Udalaren osoko bilkurak onetsi beharri eustea –berez, ez baita betetzen– komeni den aztertu beharko litzateke.*

- *Aurrekontuak aplikatzen diren ekitaldia hasi baino lehen onetsi beharko dira.*

- *Kontabilitateko sistema eta prozedurei dagokienez, egungo funtzionamenduak ondoko gomendioak eragin ditu:*

a) *Eragiketarako kontabilizatzerakoan, erregistratu beharreko egitatearen sorburutik ahal den hurbilena egin behar da.*

b) *Kontabilitatea erregistratzerakoan sortzapenaren irizpidea erabiltzea.*

Azken batean, premiazkoa da elkartearen kontabilitate-tratamenduan behar diren aldaketak egitea, kontabilitatea kudeaketaren tresna bihurtu dadin, mekanismo burokratiko hutsa izan partez.

- *Inbentarioaren barrenean, hasteko Udalak ekarritako ondasunen zerrenda ezartzea; ondo*

ren, gutxieneko edukia eta informazioa erregulatu -ko dituzten arauak ematea, bai eta horiek kontabilitatearekiko duten lotura ere.

- *Zenbait hornidura eta inbertsioren kontratazio administratiboari dagokionez, hobekuntza batzuk gertatu direla ikusi badugu ere, aipatzekoa da aplikatzeokoak diren arauak hertsiki bete behar direla, funtsean kontratuen adjudikazioan lehiaren printzipioa aplikatzeaz denaz bezainbatean.*

- *dirusarreretan, aipatzekoa da tarifik organo eskudunak –gaur egun, udalaren osoko bilkura– behar bezala onetsi behar dituela; betiere aplikatu behar diren ekitaldia hasi baino lehen, eta prestazioaren kostuei buruzko txostenetan agerrarazi beharko dira.*

- *Langile kontuetan, plantilla organikoa urtero onartu eta NAO n argitaratzea.*

Azkenik, aipatu beharra dugu udalaren kirol jarduerak bai Lagunak Elkartearen bidez –igerilekuak, pilotalekuak, pistak– bai Udalaren bidez –kiroldegia eta atletismoa– kudeatzen direla. Gure iritziz, kudeaketaren bikoizketa horrek, hasiera batean behintzat, halako kontradikzio bat irudi lezake; izan ere, erakunde autonomo hori kirol arloan bereziki jarduteko sortu baitzen.

Horrenbestez,

Gure gomendioa da udalaren kirol zerbitzuen kudeaketa bateratzea komeni den aztertea.

VII.2. "LUIS MORONDO" UDALAREN MUSIKA ESKOLA

2000n, "Luis Morondo" Udalaren Musika Eskola (aurrerantzean, Eskola) 108 milioi pezetako gastuak izan zituen eta 113 milioi pezetako dirusarrerak. Ondoko taulan ikus daiteke zehaztuta gastu eta dirusarrera horien jatorria:

(pezetak, milioitan)

dirusarrerak	Zenbatekoa	Ehunekoak
Matrikulak eta bestelako dirusarrera berekiak	43	38
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak	36	32
Barañaingo Udalaren dirulaguntzak	34	30
Guztira	113	100

(pezetak, milioitan)

Gastuak	Zenbatekoa	Ehunekoak
Langileria	93	86
Funtzionamendua eta mantentze lanak	11	10
Inbertsioak	4	4
Guztira	108	100

Ikus daitekeenez, gastuaren egitura batez ere langileen gastuetan oinarritzen da: logikoa da hori, ikusita Eskolak nolako zerbitzua ematen duen. dirusarrerei dagokienez, berriz, ikastetxeak sorturiko diru-baliabideek aurrekontuaren ehuneko 43 egiten dute; beharrezkoa da, beraz, kanpoko finantziarioa –dirulaguntzen bidez–, Nafarroako Gobernuarena eta Udalarena: 2000n, ehuneko 32koa eta 30ekoa, hurrenez hurren.

Langileei dagokienez, 2000. urtearen akaberan, Eskolak honako langile hauek zituen, zuzendaria barne:

Langileak	Finkoak	Aldi baterako	Guztira
Irakasleak	15	13	28
Irakasle ez direnak	1	1	2
Guztira	16	14	30

Administrazio eta kontabilitate lanetan zuzendaria eta administrari-laguntzaile bat aritzen dira.

Ondotik kudeaketarako gomendio batzuk ematen dira, Eskolaren barne kontrolaren sistemak hobetzeko komenigarriak direlakoan.

• *Musika Eskolaren estatutuak Udalaren egungo egiazko antolaketari eta funtzionamenduari egokitzea; batik bat Udalak berak betetzen dituen kontrol eginkizunei, Eskolak kudeaketa-autonomiarako duen egiazko gaitasunari eta Udalaren*

Kontu-hartzaitzak bete beharreko paperari dagozkien alderdiak.

• *Obligazioak edo eskubideak eragiten dituen egintza orok kontu-hartzaitzaren edo barne kontrolaren menpe egon behar du.*

• *Kontabilitateko sistema eta prozedurei dagokienez, egungo funtzionamenduak ondoko gomendioak eragin ditu:*

a) *Eragiketarako kontabilizatzerakoan, erregistratu beharreko egitatearen sorburutik ahal den hurbilena egin behar da.*

c) *Kontabilitatea mekanismo burokratiko hutsa izan partez, kudeaketa tresna bihur dadin.*

• *Inbentarioaren barrenean, beharrezkoa da gutxieneko edukia eta gutxieneko informazioa erregulatuko dituzten arauak ematea, bai eta horiek kontabilitatearekin duten lotura ere.*


• *Langile kontuetan, plantilla organikoa, aurrekontuarekin batera, urtero onartzea, kasuan kasuko ekitaldia hasi baino lehen.*

Francisco Javier Sesma Masa auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2001eko urriaren 22an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

1. Eranskina. Udalaren organigrama 2000-12-31n



II. eranskina. Erabilitako adierazleen definizioa

- dirusarreraren betetze-maila = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Gastuen betetze-maila = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Kobrantzen betetzea = $\frac{\text{Kobrantzak, guztira}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Ordainketen betetzea = $\frac{\text{Ordainketak, guztira}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Zorpetze-maila = $\frac{\text{Finantza-zama (3. eta 9. kapit.)}}{\text{dirusarrera arruntak (1-5 kapit.)}} \times 100$
- Zorpetze-muga = $\frac{\text{dirusarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. gastuak (1,2 eta 4. kapit.)}}{\text{dirusarrera arruntak}} \times 100$
- Zorpetze-ahalmena = Muga- zorpetze-maila
- Aurrezki garbia = $\frac{\text{dirusarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. eta finan. gastuak (1- 4 eta 9. kapit.)}}{\text{dirusarrera arruntak}} \times 100$
- Langileria indizea = $\frac{\text{Langileen aitorturiko betebeharrak}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Inbertsio-indizea = $\frac{\text{Inbertsio gastuak (6 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Diru-laguntzekiko menpekotasuna = $\frac{\text{Transferentziengatik aitorturiko eskubideak (4 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- dirusarrerak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastuak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastu arruntak biztanle bakoitzekoko = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak (1-4 kapit.), guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Presio fiskala edo tributu bidezko dirusarrerak biztanleko = $\frac{\text{Tributu bidezko dirusarrerak (1, 2 eta 3. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Finantza-zama biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Finantza-zamak (3 eta 9. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$

KONTUEN GANBARARI AURKEZTEN ZAIZKION ALEGAZIOAK, UDAL HONETARA IGORRITAKO 2000KO EKITALDIARI BURUZKO BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA DELA ETA.

1.- 7. orrialdean, IV.1.5 atalean, ondokoa esaten da: "...Barne Araubidearen Erregelamendua ez da onartu.

Egia bada ere aipatu Erregelamendua oraindik ere ez dela onetsi, Gobernu Batzordeak hartutako erabakiaz zirriborro bat prestatzeari ekin zitzaion; gero Osoko Bilkurak onetsi beharko du. Gaur egun, prestaketa lanetan ari dira.

Orrialde berean, hauxe esaten da: "Epe ertainera eta luzera udal finantzen egoera agertuko duen ekonomia- eta finantza-proiektzioko azterlanik ez da egin."

Horri gehitu behar zaio Udal honek ematen dituen zerbitzuen kostuari buruzko azterlana egitea kontratatu dela, hain zuzen ere ekonomia- eta finantza-proiektzioko azterlan horiek egin ahal izateko.

8. orrialdean, a) atalean, ondokoa esaten da: "a) Ondasunen inbentarioa gaurkotzea, udalaren jabetzakoak bermatzeko bitarteko gisa- B) atalean, berriz, ondokoa: "b) lbilgetuaren saldoak berrikustea..."

Nafarroako Gobernu Toki Administrazio Departamentuak ondasunen inbentarioa egiteko araua eta sistema prestatu zain gaude, Departamentuak lege berriei eta abarrei buruzko zenbait bileretan agindu duen bezala.

8. orrialdean bertan, bederatzigarren lerrokadan, ondokoa dio: "Finantzen ikuspuntutik, epe laburrean behar bezalako egoera zuzena bada ere, epe ertain eta luzerako estimazioek badirudi baliabide berekiak sortzeko gaitasuna akitu litekeela adierazten dutela.; planeamenduan jasotako hirigintzako aurreikuspenak ere ia amaituak daudela kontuan hartuz gero, esandakoa areagotu egiten da, ez baitago udal dermioa zabaltzeko aukera fisikorik..."

Udalbatza hau funtsen sorrera geldirik egoteak egungo eta etorkizuneko zerbitzuei erantzuteko

izan daitekeen arazoaren jakinaren gainean dago. Hori dela eta, denbora ugari kostatuko kudeaketa, txosten proiektu eta abar egin dira, ukitutako aldeentzat kostu ekonomiko handia ekarri dutenak; haietarako, hasieran, oztopoak jarri zituen Nafarroako Gobernuak, eta azkenean ukatu ere egin zituen. Zehazki, Barañaingo HAPOa aldatzeari buruzkoak ziren, hain zuzen ere saltoki handi bat eraiki ahal izateko; horrek urtean 250 eta 300 milioi bitarte ekarriko zizkion Udalari. Nafarroako Gobernuak adierazitako HAPOaren aldaketa behin betiko onesteari uko egite hori -Nafarroako Gobernu departamentuetako legezko epe guztiak agortu ziren- halako modukoa izan zen non espedientearen ez onesteari buruzko komunikazioa arauak ezarritako epeaz kanpo iritsi baitzen. Foru gobernua ez du egitate hori onartu nahi izan eta, horrenbestez, uzia epaitegietan dago, Udal honek eta promotoreak berak administrazio-arekiko auzi errekurtsioa aurkeztu baitute.

Auzi honek Udalaren diru-funtsak ez ezik saltoki horrek sortuko zuen enplegua ere, emakumeentzako nagusiki, larriki ukitzen ditu; halaber, tokiko gainerako negozio txikiei ekarriko zien onuraren ere eragiten du.

Barañainen, 2001eko urriaren 17an.

Alkatea: Joaquín Olloqui Osés

NAFARROAKO KONTUEN GANBARAKO LEHENDAKARIAK BARAÑAINGO UDALEKO ALKATE JAUNAREN ALEGAZIOEI EMANIKO ERANTZUNA.

Barañaingo Udaleko alkateak 2000ko ekitaldiko Barañaingo Udalari buruzko behin-behineko fiskalizazio txostenari egin dizkion alegazioak aztertuta, alegazio horiek txostenari erantsi dizkiogu.

Kontuen Ganbarak, berriz, berretsi egiten du behin-behineko txostenean esandakoa, eta hortaz, behin betikotzat jo du hura.

Iruñean, 2001ko urriaren 22an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Tuterako Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 29an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak Tuterako Udalarari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2001eko urriaren 31n

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Tuterako Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (25. or.).
- II. Helburua (25. or.).
- III. Norainokoa (26. or.).
- IV. Iritzia (26. or.).
 - IV.1. Aurrekontuaren likidazioa (27. or.).
 - IV.2. Ondare-egoeraren agerpena (27. or.).
 - IV.3. Legezketasuna (27. or.).
 - IV.4. Kontuen Ganbararen gomendioen jarraipena (27. or.).
 - IV.5. Erakunde autonomoak (27. or.).
 - IV.6. 2000ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko-finantzarioa (27. or.).
- V. Finantza egoerak 2000ko abenduaren 31n (28. or.).
 - V.1. Tuterako Udala (29. or.).
 - V.2. Erakunde autonomoak.- 2000ko ekitaldia (32. or.).
- VI. Iruzkin, ondorio eta gomendio orokorrak (33. or.).
 - VI.1. Kontabilitatea, aurrekontuak eta barne-kontrola (33. or.).
 - VI.2. Administrazio-kontratazioa (33. or.).
 - VI.3. Transferentzi gastuak (33. or.).
 - VI.4. Ibilgetua eta inbentarioa (33. or.).
 - VI.5. Finantza-kontuak eta diruzaintza (34. or.).
 - VI.6. Langileak (34. or.).

VI.7. Tributuen dirusarrerak eta zordunak (35. or.).

VI.8. Hirigintza (36. or.).

VI.9. EUROaren hastapenak (36. or.).

VI.10. Gorabeherak (36. or.).

VI.11. Erakunde autonomoak (37. or.).

Gehigarria: Finantza-egoera 2000ko abenduaren 31n (38. or.).

Tuterako Udalak aurkezturiko iruzkinak (42. or.).

I. Eranskina. Tuterako Udalaren organigrama 2001-01-01ean (43. or.).

II. Eranskina. Erabilitako adierazleen definizioa (44. or.).

I. SARRERA

Tuterak, Nafarroako Erriberako hiriburuak, 1999ko urtarrilaren 1ean, 27.788 biztanle zituen udal-errolan; beraz, Foru Komunitateko bigarren hiria da biztanletan.

Udalak bere jarduerak burutzeko ondoko erakunde autonomoak (EA) ditu:

- Uren Udal Batzarra
- Castel-Ruiz Kulturgunea.

Udala, bestalde, Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitatearen barruan dago, hiri-hondakinak tratatzeko, eta baita Eder Partzuergoan ere; Erribera bere osotasunean garatzeko erakundea da hori.

Hauek dira udalaren eta haren erakunde autonomoen 2000ko kopururik garrantzitsuenak (oraindik bateratu gabeak):

	Betetako gastuen aurrekontua (pezetak, milioitan)	Betetako dirusarreraren aurrekontua (pezetak, milioitan)
Udala	3.582	3.992
Uren Batzarra	447	452
Castel Ruiz	178	178

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari jarraituz, bai eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbara

arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari ere, Tuterako Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2000ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazioa egin dugu; halaber, ekitaldi horretako gastu eta dirusarrera aurrekontuen betetzea ere fiskalizatu dugu.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: aurretik aipatutako legeek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuak (abuztuaren 30eko 251/1993 Foru Dekretua), administrazio-kontratazioari nahiz hirigintza-kudeaketari buruzko arauak (bereziki, ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legea) eta Nafarroako toki-enteei orokorki aplikatzekoak zaizkien gainontzeko arauak.

1998ko irailaren 21eko 270, 271, 272 foru dekretuetan dago ezarrita kontabilitate eta aurrekontuei buruzko araubide juridikoa. Lehenengo dekretua aurrekontu eta gastu publikoei buruzkoa da, bigarrena aurrekontuen egiturari buruzkoa, eta hirugarrena, berriz, kontabilitate instrukzio orokorra. Dekretu horiek aplikatzea borondatezkoa zen 1999an, eta nahitaezkoa 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

a) Tuterako Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2000ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 2000ko abenduaren 31n zegoen ondare-egoera islatzea, oro har onartzen diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotua egon den.

d) Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantza-egoera 2000ko abenduaren 31n.

e) Nafarroako Kontuen Ganbarak 1999ko ekitaldiari buruz egindako fiskalizazio-txosteneko gomendioak noraino bete diren.

III. NORAINOKOA

Tuterako Udalak Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorra ezarrita dauka eta erakunde autonomoek ere badute kontabilitate orokorreko aplikazioa.

Udalak badauka ekitaldian egindako jarduera jasotzen duen Kontu Orokorra. Bertan, iruzkin eta ondorio orokorrez gain, ondoko hauek ere biltzen ditu: ikuspuntu ekonomiko eta funtzionaletik analizatutako aurrekontuaren betetzeari buruzko

eranskinak; egoeraren balantzea; gai garrantzitsuenak zehaztea, hau da, aurrekontuaren emaitzak eta diruzaintzako gerakina, bai eta itxitako ekitaldien egoera. Kontu Orokorki hori erakunde autonomoetako informazioarekin eta udalaren eta haren erakunde autonomoen arteko egoera bate-ratuarekin osatuta dago.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsiriko fiskalizazio-printzipio eta arauari jarraituz burutu dugu lana eta halaber, egoeraren arabera beharrezkotzat jo ditugun frogak guztiak ere egin ditugu.

Udalari eta haren erakundeei buruzko lanak haxe izan du arretagai: dirusarrerei eta gastuei buruzko atal ekonomikoak, abenduaren 31ko egoeraren balantzea berrikustea eta antolaketari, kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkion hainbat puntu aztertzea.

Txostenak sei atal ditu, eta horietan Tuterako Udalaren eta haren erakundearen antolaketa, barne-kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko -bai eta udalak lortutako emaitzarik behinenak nabarmentzeko ere- egokitzen ditugun helburu, iritzi, ondorio eta gomendio orokorrak biltzen dira, batez ere. Atal horiez gain bada gehigarri bat, entitateak 2000ko abenduaren 31n duen finantza egoerari buruzkoa, eta bi eranskin, data horretako entitatearen organigramari eta txostenean erabilitako ratioei buruzkoak.

Organigramari dagokionez, zehaztu beharra dago 2001. urterako Udalak duen egitura berriari dagokiola; izan ere, 2000. urteko zatirik handienean, egitura 1999koa bera izan da. Aldaketak egin dira ekonomia arloko arduradun bat jartzeko, kontu-hartzailetzaren arloaz aparte, aurreko txostenean gomendatu bezala.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak ematen dizkiegu udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei.

IV. IRITZIA

Egindako fiskalizazioaren esparruan, Tuterako Udaleko 2000ko ekitaldiko finantza-egoera bate-ratuaren orriak aztertu ditugu. Egoera-orri horiek udalaren ardurapean burutu ziren, eta laburtuta bildu ditugu txosten honetako V. atalean.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta -prozedurak aplikatu dira.

Egindako berrikuspeneren ondorio gisa, honako iritzia agertuko dugu:

IV.1. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA DELA-ETA

2000ko aurrekontuaren likidazioaren egoerak ongi agertzen ditu ekitaldiko dirusarrera eta gastuak, kobratzeke dauden eskubideak, ordaintzeke dauden betekizunak eta baita 2000ko abenduaren 31n dagoen diruzaintzako gerakina ere.

IV.2. ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

2000ko abenduaren 31ko egoera balantzeak nahiko ongi agertzen du udalaren ondare egoera. Hona salbuespenak:

- Inbentarioa gaurkotzen –1994ko data baitu– eta kontabilitate-balioekin bateratzen ari dira, bai eta ibilgetuaren amortizazio metatuaren balioespenaren gaurkotzea ere.

- Ez dira kontuan hartu egungo pentsio-sistemak sorrarazten dituen betebeharrak aktuarialak.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, Tuterako Udalaren jardura ekonomiko-finantzarioa legezketasun printzipioari jarraituz egiten da.

IV.4. KONTUEN GANBARAK EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

Oro har, esan daiteke aurreko txostenetako gomendio nagusiak bete direla, nahiz eta ezarri gabe dauden egintza jakin batzuk.

IV.5. ERAKUNDE AUTONOMOAK

Udalaren erakunde autonomoen –Uren Batzarra eta Castel Ruiz Kulturgunea– urteko kontuek oro har ongi agertzen dute 2000ko abenduaren 31 arte egindako jardura eta egoera ekonomiko-finantzarioa.

IV.6. EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2000KO ABENDUAREN 31N

Tuterako Udalak eta haren erakunde autonomoek, biek batera, 2000ko abenduaren 31n, honako egoera erakusten dute: diruzaintzan 939 milioitako gerakin positiboa (593koa 1999an), epe luzerako 2.484 milioitako zorpetzea (2.621 1999an), ehuneko 5eko zorpetze maila (1999an bezala) eta ehuneko 22eko aurrezpen garbia (ehuneko 21ekoa 1999an).

Aurreko datuek udalaren finantza-egoera hobetu dela erakusten dute, 1999ko txostenean agertzen zenarekin erkatzen badugu. Hobekuntza

hori batez ere diruzaintzako gerakinean ikusten da.

Hobekuntza honen arrazoia, batez ere, Bideragarritasunerako Plan Finantzarioa zorrotz betetzean (finantza gastuak –aurrekontuaren 3. kapitulu– jaitsi egin dira 1999tik hona), tributu bidezko dirusarrerak nabarmen igotzean (1, 2 eta 3. kapituluetakoa aitortutako eskubideak 359 milioi pezeta igo dira 1999tik) eta transferentzia bidezko dirusarrerak 66 milioi pezeta igotzean (4 eta 7. kapituluak) egon daiteke.

Udalak eta bere erakunde autonomoek diruzaintzako gerakin positiborik sortu du, ondoko taulan ikus daitekeen bezala (pezetak, milioitan):

	Diruzaintzako gerakina
Udala	658
Uren Batzarra	278
Castel-Ruiz Kulturgunea	3
Diruzaintzako gerakin bateratua	939
Gastu orokorretarako	889
Atxikitakoa	50

Laburpen eta ondorio nagusi gisa, honako hau esan dezakegu:

- Udalak behar bezala kudeatzen ditu aurrekontuak. Hala ere, prozedura aldiro hobetzearen, beharrezkoa du:

- a) Aurrekontu sistema eraberritzeko bitartekoak ezartzea, jardueraren helburu eta adierazleak jasoz eta kudeaketan lortutako eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia maila aztertu eta neurtzeko prozedurak ezarriz.

- b) Inbertsioak egiteko epeei buruzko kontrola areagotzea.

- c) Erakunde autonomoen esparruan kontu-hartzailetza funtzioa osatzea, era berean indartzu a posteriori egin beharreko jardura eta barne-auditoretzako unitate gisa egiten duen jardura ere.

- d) Beharrezkotzat jotzen da sektore publikoko kontabilitate plan orokorrean zehazten den urteko oroit-idazkia egitea, Kontu Orokorraren barruko beste finantza-egoera baten moduan.

- Finantza-egoerari dagokionez, azken ekitaldietako egoera positiboa mantentzen da. Halere, udalak bere Bideragarritasunerako Plan Finantzarioan ezarritako aurrekontu-zorroztasunaren politika mantendu behar du, batez ere kontuan hartuz zorpetzeko ahalmena, maileguen amortizaziorik ez dagoen epeen bukaera eta zenbait errekurso-

ren abaguneko izaera. Nabarmentzekoa da Bidegarritasunerako Plan Finantziarioa betetzen ari dela.

- Foru Komunitatearen esparruan, Udal Montepioari behin betiko irtenbidea bilatzea komeni da.

V. 2000KO ABENDUAREN 31KO FINANTZEN EGOERA-ORRIAK

Atal hau osatzen dute ondoko finantza egoera-orriek:

- Tuterako Udala: egoeraren balantzea 2000ko abenduaren 31n, 2000ko aurrekontuaren likidazioa kapitulu ekonomikoka, eta diruzaintzako gerakina 2000ko abenduaren 31n.

- Erakunde autonomoak: 2000ko aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera.

Konparazio baterako, 1999ko ekitaldiko hainbat datu ere eman ditugu.

V.I. TUTERAKO UDALA

V.1.1. 2000-12-31ko balantze egoera

AKTIBOA

Izena	Zenbatekoa (pezetak, milakotan)	
	1999	2000
IBILGETU MATERIALA	7.002.740	7.257.571
Lurrak eta ondasun naturalak	1.034.666	1.096.709
Eraikinak eta bestelako eraikitzeak	5.648.782	5.819.819
Makineria, instalazioak eta tresneria	67.913	68.330
Garraio-elementuak	95.788	107.066
Altzariak	75.499	76.990
Informazio-prozesuetarako ekipoa	68.492	77.057
Instalazio konplexu espezializatuak	11.600	11.600
IBILGETU EZ-MATERIALA	40.000	40.000
Bestelako ibilgetu ez-materiala	40.000	40.000
INBERTSIOAK ERABILERA OROKOR. OND. ETA AZPIEG.	1.685.832	2.079.599
Lurrak eta ondasun naturalak	1.638.049	2.031.815
Ondare historikoa	47.783	47.784
INBERTSIOAK AZPIEGITURA ETA HERRI ONDASUNETAN	2.630.997	2.631.171
Lurrak eta herri ondasun naturalak	2.452.700	2.452.700
Azpiegiturek eta herri ondasunak	178.297	178.471
IBILGETU FINANTZARIOA	1.000	1.000
Betebeharrak, bonoak eta errenta finkoko beste inbertsioak	0	0
Kotizazio ofizialik gabeko akzioak	1.000	1.000
ZORDUNAK	854.311	1.186.108
Aitortutako betebeharren hartzekodunak. Indarreko aurrekontua	478.525	753.525
Aitortutako betebeharren hartzekodunak. Itxitako aurrekontuak	359.421	410.288
Ogasun Publikoka, jasandako BEZa	0	0
Ogasun Publikoka, hartzekoduna BEZarengatik	249	9.257
Jasotako gordailuak	9.300	6.681
Emandako aurrerakin eta maileguak	5.311	5.875
Kutxa finkoko aurrerakinak	0	0
Aurrekontukoak ez diren dirusarrerak formalizatzea	1.499	127
BEZaren zordunak	6	355
Aurrekontuz kanpoko bestelako zordunak	0	0
APLIKATZEKE DAUDEN KONTUSAILAK	0	260
Eragiketak betetzeko emateak	0	260
KONTU FINANTZARIOAK	456.376	604.301
Kutxa	1.729	4.498
Bankuak eta kreditu erakundeak. Kontu operatiboak	161.941	200.614
Bankuak eta kreditu erakundeak. Dirubilk. murrizt. kontuak	28.022	53.807
Bankuak eta kreditu erakundeak. Kotu finantzarioak	264.683	345.382
Aktiboa, guztira	12.671.256	13.800.010
AKTIBOKO AURREKONTU KONTROLEKO KONTUAK	0	264.625
Ondorengo ekitaldietako gastuen aurrekontua	0	264.625
AKTIBOKO ORDENA-KONTUAK	990.171	1.526.115
Baloreak formalizatzea	0	0
Gordailuko baloreak	702.079	912.325
Luzaturiko eta zatiyuriko garantiako agirien gordailugileak	699	530
Diruzaintza: Jasotako baloreak	243.909	505.199
Diruzaintza: Certificaciones de Descubierto	43.484	108.061

PASIBOA

Izena	Zenbatekoa (pezetak, milakotan)	
	1999	2000
ONDAREA ETA ERRESERBAK	7.895.995	8.456.622
Ondarea	7.302.549	7.302.549
Aplikatzeke dauden emaitzak	593.446	1.154.073
KAPITAL DIRU-LAGUNTZAK	599.282	826.259
Estatuko Sektoretik jasotako kapital-dirulaguntzak		1.500
Erkidego autonomoetakoak	584.282	809.759
Enpresa pribatuetakoak	15.000	15.000
HORNIDURAK	352.000	415.000
Hornidurak	352.000	415.000
EPE LUZEKO ZORRAK	2.457.977	2.329.769
Epe luzeko maileguak	741.026	724.676
Epe luzeko maileguak, barnekoak	1.716.951	1.605.093
EPE LABURREKO ZORRAK	634.995	716.070
Aitortutako betebeharrengatiko hartzekodunak. Indarreko aurrekontua	8.476	15.541
Aitortutako betebeharrengatiko hartzekodunak. Itxitako aurrekontuak	107.122	83.911
Agindutako ordainketengatiko hartzekodunak. Indarreko aurrekontua	379.965	454.154
Agindutako ordainketengatiko hartzekodunak. Itxitako aurrekontuak	51.187	54.046
dirusarrerak itzulteagatiko hartzekodunak	3.000	1.918
Ogasun Publikoa kontzeptu fiskalengatik hartzekoduna	39.422	42.256
Gizarte Segurantzak, hartzekoduna	1.997	2.757
Ogasun Publikoa, jasandako BEZa	0	0
Ogasun Publikoa, hartzekoduna BEZarengatik	0	0
Jasotako gordailuak	93	102
Jasotako aurrerakin eta maileguak	0	0
Funtzionarioen gizarte-aurreikuspeneko entitateak	0	0
Aurrekontuz kanpoko ordainketak formalizatzea	3.457	332
BEZarengatiko hartzekodunak	899	4.489
Aurrekontuz kanpoko bestelako hartzekodunak	10.537	27.261
Epe laburreko fidantzak	28.784	29.303
Epe laburreko fidantzak. Probetx. unit.	56	0
APLIKATZEKE DAUDEN KONTUSAILAK	738	1.628
Aplikatzeke dauden dirusarrerak	704	1597
Aplikatzeke dauden bestelako kontusailak	34	31
EKITALDIKO EMAITZAK	560.628	980.176
Ekitaldiko emaitzak	560.628	980.176
EPEKATZEAREN DOIKETAK (PASIBOA)	169.641	74.486
Aurreratutako ordainketak	169.641	74.486
Pasiboa, guztira	12.671.256	13.800.010
PASIBOKO AURREKONTU KONTROLEKO KONTUAK	0	264.625
Geroko ekitaldietako kredituen atxikipena	0	264.625
PASIBOKO ORDENA-KONTUAK	990.171	1.526.115
Baloreak formalizatzea	0	0
Baloreen gordailugileak	702.079	912.325
Luzaturiko eta zatituriko garantiako agirien gordailugileak	699	530
Jasoagirietan gauzaturiko eskubieak	243.909	505.199
Zorpekoaren ziurtagirietan gauzaturiko eskubideak	43.484	108.061

V.1.2. Udalaren aurrekontuaren likidazioa. 2000ko ekitaldia

(pezetak, milakotan)							
dirusarreraren kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Kitaturiko eskubideak	Dirubilketa-likidoa	Kobratzeke	Betetzearen %
1-Zuzeneko zergak	893.150	0	893.150	1.121.272	601.388	519.885	125.5
2-Zeharkako zergak	180.000	0	180.000	433.082	319.854	113.229	240.6
3-Tasak eta bestelako dirusar.	363.526	0	363.526	495.635	417.716	77.918	136.3
4-Transferentzia arruntak	1.349.706	52.639	1.402.345	1.397.677	1.375.166	22.510	99.7
5-Ondare dirusarrerak	198.995	0	198.995	210.113	194.536	15.577	105.6
6-Inbertsio errealak besterent.	331.000	3.143	334.143	20.317	20.317	0	6.08
7-Kapital transferentziak	265.000	319.270	584.270	314.358	309.952	4.406	53.8
8-Finantza-aktiboak	0	-45.281	-45.281	0	0	0	
9-Finantza-pasiboak	0	651.863	651.863	0	0	0	0
dirusarrerak, guztira	3.581.377	981.634	4.563.011	3.992.454	3.238.929	753.525	87.5
dirusarrerak, guztira 1999	3.439.067	574.016	4.013.083	3.705.315	3.226.790	478.525	92
(pezetak, milakotan)							
Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aiturtoriko obligazioak	Ordainketa-likidoak	Ordaintzeke	Betetzearen %
1-Langileen ordainsariak	1.415.600	87.168	1.502.768	1.459.323	1.442.707	16.616	97.1
2-Ondasun arrunt. eta zerb. g.	1.074.448	39.095	1.113.543	974.965	749.748	225.217	87.6
3-Gastu finantzarioak	110.607	-30.000	80.607	74.903	72.574	2.329	92.9
4-Transferentzia arruntak	256.333	28.648	284.981	247.146	201.925	45.221	86.7
6-Inbertsio errealak	421.000	826.654	1.247.654	595.830	449.521	146.309	47.8
7-Kapital transferentziak	175.000	30.069	205.069	101.749	73.692	28.057	49.6
8-Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	
9-Finantza-pasiboak	128.389	0	128.389	128.208	122.262	5.946	99.9
Gastuak, guztira	3.581.377	981.634	4.563.011	3.582.124	3.112.429	469.695	78.5
Gastuak, guztira 1999	3.439.067	574.016	4.013.083	3.112.806	2.724.366	388.440	78

V.1.3. Udalaren diruzaintzako gerakinaren egoera 2000-12-31n

		Zenbatekoak (pezetatan)	
Kodea	Kontuak	1999	2000
1	(+) Ekitaldi-bukaeran konbratzeke dauden zordunak	501.572.562	769.480.223
	dirusarreraren aurrekontukoak. Indarreko aurrekontua	478.524.477	753.525.025
	dirusarreraren aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	359.421.206	410.287.732
	Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketakoak	16.365.505	22.295.076
	Ken kobratzen zailak diren saldoak	(352.000.000)	(415.000.000)
	Ken aplikatzeke dauden eta egin diren dirusarrerak	(738.626)	(1.627.610)
2	(-) Ekitaldi-bukaeran ordaintzeke dauden hartzekodunak	634.995.345	715.809.523
	Gastuen aurrekontukoak. Indarreko aurrekontua	388.441.197	469.695.036
	Gastuen aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	158.308.872	137.956.290
	dirusarreraren aurrekontukoak	3.000.051	1.917.719
	Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketakoak	85.245.225	106.500.478
Ken behin betiko aplikatzeke dauden eta egin diren ordainketak	0	(260.000)	
3	(+) Ekitaldiaren bukaeran diruzaintzan diren funts likidoak	456.375.823	604.301.040
	DIRUZAINZTA-GERAKINA, GUZTIRA	322.953.040	657.971.740
	Atxikitako diruzaintza-gerakina	23.301.991	49.953.958
	Diruzaintza orokorraren gerakina	299.651.049	608.017.782

V.2. ERAKUNDE AUTONOMOAK. 2000KO EKITALDIA

V.2.1. Uren Batzarra. Aurrekontuaren betetze maila (pezetak, milakotan)

dirusarreraren kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Kitaturiko eskubideak	Dirubilketa-likidoa	Kobratzeke	Betetzearen %
4-Transferentzia arruntak	0	0	0	0	0	0	-
5-Ondare dirusarrerak	4.000	0	4.000	7.674	7.674	0	192
6-Inbertsio errealak besterentzea	100	0	100	0	0	0	0
7-Kapital transferentziak	0	231.203	231.203	86.444	64.393	22.051	37
8-Finantza-aktiboak	0	22.077	22.077	0	0	0	0
9-Finantza-pasiboak	23.500	64.793	88.293	0	0	0	0
dirusarrerak, guztira	368.250	321.130	689.380	452.342	362.518	89.824	66
dirusarrerak, guztira 1999	590.630	118.080	708.710	374.026	304.909	69.117	53
Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aiturtoriko obligazioak	Ordainketa-likidoak	Ordain-tzeke	Betetzearen %
1-Langileen ordainsariak	106.650	0	106.650	97.888	95.999	1.889	92
2-Ondasun arrunt. eta zerb. gast.	160.264	-2.342	157.922	126.818	101.556	25.262	80
3-Gastu finantzarioak	3.316	0	3.316	1.629	1.630	0	49
4-Transferentzia arruntak	0	0	0	0	0	0	-
6-Inbertsio errealak	83.650	319.138	402.788	205.868	148.862	57.005	51
7-Kapital transferentziak	0	4.334	4.334	0	0	0	0
9-Finantza-pasiboak	14.370	0	14.370	14.366	14.366	0	100
Gastuak, guztira	368.250	321.130	689.380	446.569	362.413	84.156	65
Gastuak, guztira 1999	590.630	118.080	708.710	339.368	287.668	51.700	48

V.2.2. Castel-Ruiz Kulturgunea. Aurrekontuaren betetze maila (pezetak, milakotan)

dirusarreraren kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Kitaturiko eskubideak	Dirubilketa-likidoa	Kobratzeke	Betetzearen %
3-Tasak eta bestelako dirusar.	20.820	5.793	26.613	20.991	19.991	1.000	79
4-Transferentzia arruntak	147.000	13.950	160.950	157.064	140.995	16.069	98
5-Ondare dirusarrerak	300	0	300	170	170	0	57
dirusarrerak, guztira	168.120	19.743	187.863	178.225	161.156	17.069	95
dirusarrerak, guztira 1999	149.620	14.294	163.914	157.345	147.399	9.946	96
Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aiturtoriko obligazioak	Ordainketa-likidoak	Ordain-tzeke	Betetzearen %
1-Langileen ordainsariak	95.430	4.600	100.030	98.455	96.493	1.962	98
2-Ondasun arrunt. eta zerb. gast.	64.290	15.893	80.183	73.970	66.753	7.217	92
4-Transferentzia arruntak	6.050	-1.200	4.850	3.970	3.731	239	82
6-Inbertsio errealak	2.350	450	2.800	1.830	1.460	370	65
Gastuak, guztira	168.120	19.743	187.863	178.225	168.437	9.788	95
Gastuak, guztira 1999	149.620	14.294	163.914	157.345	142.367	14.978	96

VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIO NAGUSIAK

Ondoren aurkeztuko ditugu udalaren eta haren erakunde autonomoen antolamendua eta barne kontroleko sistema hobetzeko iruzkin eta ondorio garrantzitsuenak, bai eta egokitzat jo ditugun gomendio orokorrak ere. VI.1-tik VI.10-ra bitartekoak udalari buruzkoa dira, eta VI.11, berriz, erakunde autonomoei buruzkoa.

VI.1. KONTABILITATEA, AURREKONTUAK ETA BARNE KONTROLA

Orokorrean, ondoko hauek gomendatzen ditugu:

- *Aurrekontuko inbertsioetarako zenbatekoak kudeaketa-ahalmen errealetara doitu eta hurbiltzea, kreditu-gerakinetako saldo handiak hurrengo ekitaldietako aurrekontuetara ez gehitzearren.*

- *Aurrekontuak hobetzeko prozesu bat sustatzea, udal barrutiek errekurtsio publikoak erabiltzean lortzen duten eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia maila aztertzea ahalbidetuko duten helburu eta adierazleetan oinarrituz. Hori guztia udal kudeaketaren plangintza ekonomikoaren prozesuaren barruan eginen da, giza eta gauza baliabide egokiek.*

- *Erakunde autonomoen kontrol ekonomiko eta finantzarioko prozesuan aurrera jarraitzea.*

- *Udalaren kontu-hartzaitzak a posteriori egin beharreko lana bultzatzea, bai fiskalizazioaren aldetik eta baita prozedurak aztertu eta hobekuntzak ezartzearen aldetik ere.*

- *Urteko oroit-idazkia egitea.*

VI.2. ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOA

Atal honetan bereizten dira, batetik, zerbitzuak emateko, hornitzeko eta erosketak egiteko kudeaketa, eta bestetik, inbertsioak.

VI.2.1. Erosketak eta zerbitzuak emateko eta hornitzeko kontratuak

Aztertutako laginaren arabera eta orokorrean, hauxe gomendatzen dugu:

- *Erosketa Batzordea eratzea; erosketa gaietan alorrei aholkuak eman eta horiek koordinatzeko ardura duen udal organoa izanen litzateke.*

- *Pleguetan hautapen irizpideei emandako puntuak banatzeko formula edo azpi-irizpideak zehaztuko dira.*

- *Hautapen prozesuetan aurkeztutako proposamenen erregistroko ziurtagiria espedienteetan jasotzea.*

- *Zenbait gastu aurrekontuan, gastuen aurrekontuko 2. edo 6. kapituluaren sartzeko irizpideak finkatzea.*

2001. urterako aurrekontuen oinarriek jada zenbait irizpide jasotzen dituzte; hurrengo urteetan aztertu beharko dira horiek.

VI.2.2. Inbertsioak

Aztertutako laginetik ondoko akatsak ondorioztatu ditzakegu:

- *Espedienteetan ez da jasotzen udal erregistroak hautapen prozesuan aurkeztutako eskaintzei buruzko ziurtagiririk.*

- *Ez da zehatz eta zorrotz begiratu epe hauek betetzen diren:*

1. Obren hasiera.

2. Obren bukaera. Ikusi ahal izan dugunez, berrikusitako obra ia guztiak ezarritako epeak bukatu eta askoz beranduago bukatu dira, pleguetan ezarritako zehapen-bideak aplikatu gabe.

3. Ziurtagiriak ematen direneko aldizkotasuna, pleguetako baldintzei jarraikiz.

Ondorioz, esan dezakegu, udalak, oro har, kontratazio-arauegia betetzen duela, baina halere aurreko lerroketan aipatutako legearen alderdiak bete behar ditu eta batez ere, obren epeak betetzen diren askoz hobeki kontrolatu behar du.

VI.3. TRANSFERENTZIA GASTUAK

Alor horretan gomendatzen dugu irizpide zehatzak ezartzeko aurrekontuko 2. kapituluari zein 4. kapituluari gastuak egozteko (saillapen ekonomiko).

2001. urterako aurrekontuaren oinarriek jada zenbait irizpide jasotzen dituzte, hurrengo urteetan ere aztertu beharko direnak.

VI.4. IBILGETUA-INBENTARIOA

Udalaren inbentarioa gaurkotzen ari dira –1994koa baita– ondoren, bertako diru-kopuruak kontabilitateko zifrekin bateratzeko.

Prozesu hori burutzeak lan handia eta giza eta gauza baliabideen kopuru handia eskatzen duela kontuan izanik, gomendatzen dugu udalaren inbentarioa gaurkotzen jarraitzea eta baita ibilgetuarekiko korrespondentzia ere, udal ondasunen

kontrolaren eta kontabilitatearen agerpen egokia bermatzearen.

VI.5. FINANTZA-KONTUAK ETA DIRUZAIN-TZA

Ondareko alor hau 1999ko ekitaldiarekiko ehuneko 32 igo da, eta 604 milioitara iritsi da.

Kudeaketa hobetzeko, hauxe gomendatzen dugu:

- *Diruzaintzako prozedura nagusiak ezartzea, idatziz, eta aldiro gaurkotuta mantentzen saiatzea.*

- *Diruzaintzako egoera-orrietan derrigorrezko dirubilletako kontuak eta egoera balantzea sar-tzea.*

VI.6. LANGILEAK

VI.6.1. Alderdi orokorrak

Langileen gastuak, 2000n, 1.459 milioikoak izan dira –ekitaldiko gastuen ehuneko 40–. Hone-la banatzen dira, aurrekontu-artikuluen arabera:

	(pezetak, milioitan)	
	Obligaciones reconocidas	
	1999	2000
Goi karguak	3	3
Kabineteko behin-behineko langileak	15	10
Funtzionarioak	621	661
Lan kontratadunak	269	318
Gizarte prestazio eta gastuak	208	239
Prestazioak pentsioengatik	217	228
Guztira	1.333	1.459

Plantilla organikoak, 2000ko urtarrilaren 1ean, 232 lanpostu biltzen ditu. Hauexek dira:

Lotura mota	Kopurua
Funtzionarioa	193
Lan kontratupeko finkoak	18
Lan kontratupeko behin-behinekoak	21
Guztira	232

- 2000ko Lan Eskaintza Publikoan honako lan-postu hauek daude:

Lan Eskaintza Publikoa	Kopurua
Deialdi publiko bidez betetzeko lanpostu hutsak	2
Barne sustapen bidez betetzeko lanpostu hutsak	5
Lanpostuen birmoldaketa	–

- Prestakuntza. 1998 eta 1999 bitartean, INA-Pekin lankidetzan langile publikoen prestakuntza plana egin zen, 1999-2000 aldirako. Plan horrek udalak prestakuntza arloan dituen behar objektiboak jaso eta bateratzen ditu informazioaren teknologia berriekin eta langileen interesekin. Horren ondorioz, 24 prestakuntza ekintza eskaini ziren 1999an, eta 17 2000n.

- Udal Montepioa dela-eta, 2000n aipatzeko modukoak dira ondoko datuak:

Kontzeptua	Kopurua	Zenbatekoa	(Pezetak, milioitan)
			Batez besteko zenbatekoa
Jubilazioa	51	127	2,5
Alarguntza	47	89	1,9
Zurztasuna	13	13	1
Bestelakoak	3	0,3	0,1
Guztira	114	229,3	2

VI.6.2. Langileen kudeaketa

Egin dugun lanaren laburpen gisa, honakoa esan dezakegu: langileen gastuak ondo kontabilitzatuta daude oro har, eta bat datoz udaleko langileek, arautegiari jarraiki, sortutako ordainsariekin.

Halere, ondokoa zehaztu behar dugu:

- Goi karguen ordainsariak. Honi buruz ondokoa esan behar dugu: Zinegotziek, guztira, 17 milioi jaso dituzte –aurrekontuko 2. kapituluari egotzitakoak– fiskalizatutako ekitaldian beren dedikazioagatik. Kopuru hori honela banatzen da: 12 milioi osoko bilkuretara eta batzordeetara joateko dietengatik eta 5 milioi orduen konpentsazio gisa. Kopuru horien guztizkoei ehuneko 15eko atxikipena aplikatzen zaiei PEFZa dela-eta. Dena den, 1999ko uztailean, udaleko osoko bilkurak dietengatik jasotako kopuruen ehuneko 80 PEFZetik salbuestea erabaki zuen.

- Udal Montepioaren etorkizuneko konpromisoak ez dira zenbatu.

Egindako azterketa ikusita, hauxe gomendatzen dugu:

- *Foru Komunitateko Administrazioaren eta gainontzeko udal montepioen esparruan, behin betiko irtenbidea ematea horiei atxikitako funtzionarioei aplikatu beharreko erretiro eta pentsio sistemari.*

- *Bosturtekoak betetzen dituzten funtzionarioei udal montepioaren beherapenak aplikatzeko oinarriak gaurkotzea.*

VI.7. TRIBUTU-DIRUSARRERAK ETA ZOR-DUNAK

VI.7.1. Zergak

2000ko eta 1999ko aurrekontuen likidazioaren arabera, ondokoak dira zerga mota nagusien zenbateko aitortuak:

Zergak	(pezetak, milioitan)		
	1999	2000	% cobro
Hirilur kontribuzioa	480	517	48
Landalur kontribuzioa	25	25	97
Ekonomi jarduerak	153	171	8
EIOZ	335	433	77
Ibilgailuen gainekoa	128	141	89
Lurren balioaren igoera	172	249	68
Luxu gastuak	12	27	95

dirusarreratako 1 eta 2. kapituluak, guztira, udalaren dirusarreraren ehuneko 39 egiten dute; betetze maila, aldiz, ehuneko 145koa da.

dirusarreraren igoera ondokoetan gertatu da batez ere: EIOZ, hirilur kontribuzioa eta lursailen balioaren igoeraren gaineko zerga, udalerrian izan den hirigintza jarduera areagotu egin delako (ehuneko 0,45etik ehuneko 0,46ra) eta lurren balio igoeraren zerga dela-eta, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Legeko 5. xedapen iragankorrari jarraikiz, hamar urteko plusbaliak kobratu direlako.

Udalak derrigorrezko zerga guztiak kudeatzen ditu, eta borondatezkoen artean, luxu gastuen gainekoa –bingoa eta ehiza-barrutiak– ordainarazten du.

Aplikatzekoak diren tasei dagokienez, ondoko taulan alderatu ditugu udalarenak eta Toki Ogasunei buruzko Foru Legean ezarritakoak:

Zerga	Tuterako Udala	TOFL
Hirilur kontribuzioa	0,465	0,1-0,5
andalur kontribuzioa	0.649	0,1-0,8
Ekonomi jarduerak	1,32-1,4	1-1,4
Lurren balioaren igoera	20	8-20
5 urte bitarte	3,6	2,6-3,6
" 10 urte bitarte	3,5	2,3-3,5
" 15 urte bitarte	3,4	2,1-3,4
" 20 urte bitarte	3,4	2,1-3,4
EIOZ	4	2-5
Luxu gastuak-Bingoa	4	10

Ikusten denez, ehuneko horiek foru-arautegiak ezartzen duen eskalan erdi-goi aldera kokatzen dira.

Egindako azterketaren arabera, udal zergen kudeaketan erabilitako prozedurak egokiak dira oro har, eta aurrekontuan azaltzen diren dirusarrerak behar bezala erakusten dute zein den udalaren egoera.

Hona gure gomendioa:

- *Nafarroako Gobernuarekin batera ekonomi jardueren zergarako egindako erroldatik eratorritako arazoak konpontzea.*

VI.7.2. Tasak, prezio publikoak eta bestelako dirusarrerak

dirusarreraren aurrekontuko 3. kapituluak 496 milioiko eskubideak azaltzen dira; betetze-maila ehuneko 136koa da, eta kobrantza portzentajea, aldiz, ehuneko 84koa.

Ondoko taulan, 15 milioitik gorako eskubide aitortuak azaltzen dituzten kontzeptuak agertzen dira:

Tasak, prezio publikoak eta bestelako dirusarrerak	Zenbatekoa (pezetak, milioitan)
Herrilurak ureztatzeko zerbitzua	68
Kirol jarduerak	44
Hirigintza lizentziak	110
Establezimenduak irekitzeko lizentziak	67
Hautzaindegia	19
Postuak, barrakak eta kalez kaleko industria	24
Hornidurak ustiatzeko enpresak	46
Bestelako dirusarrerak	24

Zuhertasun irizpidea erabiliz, 2000n 1999ko prezio publiko guztiak tasa bihurtu dira.

Tasa eta prezioen lagin bat aztertuta, kudaketa-prozedura, oro har, egokia dela ikusten da; halere, hauxe gomendatzen dugu:

- *Azterlan bat egitea zehazteko zein zerbitzu kobratu behar diren tasa moduan eta zein prezio publiko moduan.*

- *Ordaindu gabeko zor mota orori dagokion gerorapen korritua aplikatzea, indarrean dagoen legerian ezartzen den bezala.*

- *Isunak kobratzeko sistema Udal Diruzaintza-Dirubilketaren sistema orokorrean barneratzea, eta honakoan ere isun bakoitzaren historia eta egoera zehatza une oro ezagutu ahal izateko prozedurak ezartzea.*

- *Ordaindu gabeko isunak, ezarritako epeen barruan, Agente Betearazleari igortzea kobraketa kudea dezan, betiere legeak ezarritako errekaru eta korrituekin.*

VI.7.3. Zordunak

Zordunen saldoa 1.186 milioi pezetakoa da (854 milioi 1999an).

Ondare hori guztia osatzen duten saldoek, oro har, kobratzeke dauden eskubideak osatzen dituzte. Hala ere, balantzeak kobratzeko zalantza dauden zordunen estimazio bat du pasiboan, eta hura kontuan hartzen da ere diruzaintzako gerakina zehazteko garaian. Bada, 2000rako, 415 milioi kobratzeko ezintasuna aurreikusi da, hau da, kobratzeke dauden eskubide guztien ehuneko 35.

Itxitako aurrekontuetako zordunen saldoa -410 milioi pezeta 2000n eta 359 milioi pezeta 1999an-honela banatzen da aitortu direneko ekitaldia kontuan hartuz (pezetak, milioitan):

Ekitaldia	1999	2000
1992	1	0,4
1993	8	5
1994	50	34
1995	91	85
1996	74	72
1997	64	55
1998	71	56
1999		102
Guztira	359	409,4

• Agente betearazlearen eta udalaren arteko kontratua berrikusi eta gaurkotzea gomendatzen dugu.

VI.8. HIRIGINTZA

Tuterako egungo Hiri Antolamendurako Plan Orokorra 1991n onetsi zen, nahiz eta 1996an gaurkotua izan.

Ez da jasota ageri aldian aldiko txostenik egin denik ezarritako helburuen betetze-mailari zein jarduketa programaren jarraipenari eta plan ekonomiko-finantzarioari buruz.

Dena den, urtero oroit-idazkiak egiten dira ebazitako espedienteei buruz.

Formalki, lurzoruaren ondarearekin eginiko eragiketetatik datozen dirusarrerekin ez zaie pro-

pio atxikitzen hura zabaldu eta kontserbatzeari. Hala eta guztiz ere, Kontu-hartzailetzak, kontabilitateaz bestera, izaera horretako dirusarrerak azaltzen dituzten egoera-orria periodikoak egiten ditu.

Aurreko kontabilitate- eta hirigintza-betebeharak betetzea gomendatzen dugu.

VI.9. EUROAREN HASTAPENAK

EUROan sartzeak sortzen ahal dituen ondorioak direla-eta, udala, udal zerbitzuen bidez, sor litezkeen arazoak konpontzeko egin beharrekoak egitean ari da.

VI.10. GORABEHERAK

Udalan alor honen inguruan dagoen informazioa 2001eko maiatzaren 28ari dagokio eta ez da baloratu kontrako epai batek udal diru-kutxan izan lukeen eragina.

Aipatutako datan igorritako informazioaren arabera, hona errekurtsu kopurua:

Auzitegi Goreneko errekurtsuak	3
Administrazioarekiko auzi-errekurtsuak	48
Nafarroako Administrazio Auzitegiko errekurtsuak	6

Hona gure gomendioa:

Udal zerbitzuek, tresna egokiak erabiliz, errekurtsuen jarraipen egokia egin dezatela, eta baita, egin daitekeenean, ekonomikoki sor ditzaketen gorabeherak ere zenbatu eta baloratu ditzatela.

Bestalde, 2000ko abenduaren 31n, udalak dituen zerga guztiak ikuskatzeko daude, eta beraz, behin betiko likidazioa egiteko dago.

VI.11. ERAKUNDE AUTONOMOAK

Idatz-zati honetan udalaren bi erakunde autonomoetan egindako azterketaren ondorio nagusiak biltzen dira: Uren Batzarra eta Castel-Ruiz Kulturgunea.

Informazio ekonomikoaren aurkezpena eskematizatzearen, bi entitate horien aurrekontuetako datu nabarmenenak datoz ondoren:

Gastu eta dirusarreraren betetzea (pezetak, milioitan)

Gastuak	Hasierakoa	Behin-betikoa	Aitorturikoa	Betetzearen %
Uren Batzarra	368	689	447	65 %
Castel-Ruiz	168	188	178	95 %
dirusarrerak	Hasierakoa	Behin-betikoa	Aitorturikoa	Betetzearen %
Uren Batzarra	368	689	452	66 %
Castel-Ruiz	168	188	178	95 %

Gastuak eta dirusarreran bere izaera dela eta (pezetak, milioitan)

Gastuak	Uren Batzarra		Castel-Ruiz	
	1999	2000	1999	2000
Langileak	106	98	80	98
Erosketak	123	127	71	74
Finantzarioak	1	2	-	-
Transferentzia arruntak	-	-	5	4
Inbertsioak	91	206	2	2
Kapital transferentziak	3	-	-	-
Finantza-pasiboak	14	14	-	-
dirusarrerak	Uren Batzarra		Castel-Ruiz	
	1999	2000	1999	2000
Tasak eta bestelakoak	337	358	24	21
Transferentzia arruntak	-	-	134	157
Ondare dirusarrerak	4	8	-	0,2
Inbertsioen besterentzea	-	-	-	-
Transf. eta bestelako kapital dirusarrerak	32	86	-	-

Udaleko ekarpena (pezetak, milioitan)

Transferentziak	Uren Batzarra	Castel-Ruiz
Arruntak		115 ⁽¹⁾
Kapitalezkoak		
Guztira		115

(1) Udaleko ekarpena aurrekontua orekatzeko.

VI.10.1. Uren Batzarra

Aurkeztutako urteroko kontuak, oro har, Uren Batzarrak 2000ko ekitaldian egindako jardueraren adierazgarri dira.

Datu ekonomiko nagusi gisa ondokoak aipatzen ditugu:

- Epe luzerako zorpetzea 142 milioikoa da, eta epe laburrera muga-eguna dutenak 12 milioi egiten dute, guztira. Epe laburreko gainerako zorrak 172 milioitara iristen dira.

- Batzarraren aldeko epe laburreko zorrek 162 milioi egiten dute, guztira.

- Diruzaintzako gerakina abenduaren 31n 278 milioikoa da eta kopuru hori osoa erabilera librekoa da.

Halaber, esan behar da Batzarrak urtero bere inbentarioa erregistratu eta gaurkotzen duela, eta ibilgetuaren zifrekin konparatzeaz gain urtero dagozkion amortizazioak egiten dituela –124 milioi 2000n–Halaber, berandutzen diren zordunei dagokien zuzkidura jartzen du –2000n 20,5 milioi.

Egindako berrikuspenetik, ondoko gomendioak ematen ditugu:

- *Batzarreko idazkariak duen lan-harremana toki entitateen egungo araudira lotzea; gaur egun zerbitzuen errentamendu harremana baitu.*

- *Inbertsioak izapidetu eta egiteko epeen gaineko kontrol zehatza egitea.*

- *Udal Kontu-hartzaitzarekin batera, bere eginkizuna den espedienteen tramitazioa egitea.*

- *Agente betearazleari jarduera horietan ohikoak diren garantiak eman ditzala eskatzea eta horretarako, behar izanez gero, bi aldeak lotzen dituen kontratua aldatzea.*

VI.II.2. Castel-Ruiz Kulturgunea

Aurkeztutako urteko kontuek, oro har, burututako jarduera islatzen dute, baina, ibilgetuak ez du jasotzen atxikitako ondasun gisa Udalak bere jardunerako emandako eraikina. Bestalde, inbentaria

ria ez da gaurkotu 1994tik; beraz, ezin dira horren zifrak ibilgetuarenekin bateratu.

Datu ekonomiko nagusi gisa, ondokoak ematen ditugu:

- *Epe luzerako zorpetzerik ez dago; epe laburrerakoa 18 milioikoa da.*

- *Diruzaintzako gerakina, abenduaren 31n, 3 milioitakoa da eta ez dago atxikia.*

- *Udalak ematen duen dirulaguntzak kulturgu-nea kudeatzeko defizitari aurre egiten dio. 2000n, kontzeptu horregatik udalak emandako laguntza 115 milioikoa izan da.*

Egindako berrikuspenetik, ondoko gomendioak ematen ditugu:

- *Udalaren ondasunak ibilgetuari atxikitzea eta ondare-masa horretako datuak alde aurretik gaurkotutako inbentariokoekin bateratzea.*

- *Musika bandari bereziki emandako laguntzen ondoriozko egoera fiskala aztertzea.*

- *Udal Kontu-hartzaitzarekin batera, bere eginkizuna den espedienteen tramitazioa egitea.*

Iruñean, 2000ko urriaren 23an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

GEHIGARRIA: FINANTZA-EGOERA 2000KO ABENDUAREN 31N

Gehigarriaren aurkezpena hobeto taxutzearen, honako atalotan emanen dugu:

a) 2000ko aurrekontu bateratuan nabarmendu beharreko alderdiak.

b) Ratio eta magnitude nabarmenenak.

c) Zorpetzearen egoera.

A) 2000KO AURREKONTU BATERATUA-REN BETETZEA

2000ko aurrekontu bateratuaren (udala eta erakunde autonomoak) betetzea ondoko taulan azaltzen da.

Tuterako Udala – Betetze bateratua

	Euroak, milakotan 2000	PTA, milakotan 2000	%
ORGANIKOA: NORK GASTATZEN DUEN			
Administrazio Orokorra	20.799	3.460.595	85
Erakunde autonomo administratiboak	3.755	624.794	15
EKONOMIKOA: A.- NOLA GASTATZEN DEN			
I.- Langileen ordainsariak	9.926	1.651.503	40
II.- Ondasun arruntak eta zerbitzuengatiko gastuak	7.051	1.173.146	29
III.- Gastu finantzarioak	460	76.532	2
IV.- Transferentzia arruntak	819	136.356	3
VI.- Inbertsio errealak	4.829	803.527	20
VII.- Kapital transferentziak	612	101.749	3
VIII.- Finantza-aktiboak	-	-	-
IX.- Finantza-pasiboak	857	142.574	3
EKONOMIKOA: B.- ZERTAN GASTATZEN DEN			
I.- Funtzionamendu gastuak	16.977	2.824.649	69
II.- Finantza-zama	1.317	219.107	6
III.- Transferentziak	1.431	238.105	5
IV.- Inbertsio gastuak	4.829	803.527	20
EKONOMIKOA: C.- GASTUAK NOLA FINANTZIATZEN DIREN			
I.- Zerga bidezko dirusarrerak	14.600	2.429.205	54
II.- Transferentziak	11.023	1.834.013	41
III.- Ondare dirusarrerak	1.432	238.274	5
IV.- Eragiketa finantzarioak	-	-	-
FUNTZIONALA: ZERTARAKO GASTATZEN DEN	Euroak, milakotan	PTA, milakotan	%
Izaera orokorretako zerbitzuak	2.098	349.065	9
Babes zibila eta gizarte babesa	1.783	296.619	7
Segurtasuna, babesa eta gizarte sustapena	4.738	788.275	19
Ondasun publiko sozialen produkzioa	12.760	2.123.029	52
Ondasun publiko ekonomikoen produkzioa	852	141.695	4
Araupetze ekonomiko orokorra	493	82.075	2
Produktzio sektoreen araupetze ekonomikoa	514	85.574	2
Erakunde autonomoak	-	0	0
Transferencias a Administraciones Públicas	-	0	0
Zor Publikoa	1.316	219.057	5

Azterketa horretatik, hauxe nabarmentzen dugu:

- Gastua, guztira, 4.085 milioikoa da –24,5 milioi euro–; ehuneko 88 Udalari dagokio, eta gaintzekoa erakunde autonomoei.

- Kapitulu ekonomikoari erreparatuta, langileen gastuek –ehuneko 40–, ondasun arruntan erosketak –ehuneko 29– eta inbertsioek –ehuneko 20– udalaren gastuaren ehuneko 89 egiten dute.

- Finantza-zamak sortutako gastuek –korrituak eta amortizazioa– aurrekontuaren ehuneko 5 egiten dute.

- Gastu horien finantziazio iturriak honakoak dira: tributu bidezko dirusarrerak –ehuneko 54–, eta transferentziak –ehuneko 41–, batez ere Nafarroako Gobernuarenak. Aipagarria da ekitaldi horretan ez dela kanpoko finantza-baliabiderik erabili.

Udalaren aurrekontuaren betetzeari soilik erreparatuta –ikus V. Atala–, ondokoak zehatz eta mehatz nabarmendu behar dira:

- Hasierako aurrekontua ehuneko 27 –982 milioi– igo da aldaketak direla medio, batez ere aurreko ekitaldiko kreditu-gerakinak sartu direlako –668 milioi–.

- Gastuen betetze maila ehuneko 78koa da. Aipagarria da inbertsio eragiketen kapituluetakoa ehunekoak batez bestekotik beherakoak direla (inbertsio errealak eta kapital transferentziak, ehuneko 48 eta 50, hurrenez hurren).

- dirusarreretan, betetze maila ehuneko 87koa da; aipatu behar da zergek erakusten duten maila

ona –ehuneko 143ko betetze maila, hau da, 613 milioi gehiago bildu dira.

- Ordainketen betetze maila ehuneko 87koa da, eta kobrantzena ehuneko 81koa.

Erakunde autonomoen aurrekontuaren betetzea dela-eta, hauxe adierazten dugu:

- Uren Batzarraren aurrekontuak aldaketa handiak izan ditu, hasierako aurreikuspenak 321 milioi igo baitira, hau da, ehuneko 87 gehiago. Aldaketa horiek inbertsio errealetan gertatu dira, batez ere, hain zuzen ere 321 milioi horietatik 319 baitira.

Gastuen betetze maila ehuneko 65ekoa da. Finantza gastuen eta inbertsioen kapituluetan exekuzioari buruzko adierazleak txikiagoak dira, ehuneko 49 eta 51 hurrenez hurren.

dirusarrerei dagokienez, betetze maila ehuneko 66koa da; aipagarriak dira kapital transferentziak, ehuneko 37ko betetze maila baitute.

- Castel-Ruiz Kulturguneak dituen gastuen eta dirusarreraren ehunekoak orekatuak dira: 178 milioi, ehuneko 95ko betetze-mailarekin. Gastuei dagokienez, batez ere langileen gastuak aipatu behar dira –ehuneko 55– eta baita ondasun arruntak erostea –ehuneko 41–. dirusarrerei dagokienez, batez ere transferentzia arruntetatik datoz –gutzizkoaren ehuneko 88.

B) RATIO ETA MAGNITUDE NABARMENENAK

Ondotik datorren taulan azaltzen dira 1999 eta 2000ko ekitaldietako aurrekontu-betetze bateratutik ateratzen diren ratio nabarmenenak.

TUTERAKO UDALA - Datu bateratuak			
Adierazle nagusiak	2000	1999	1998
dirusarrerak biztanle bakoitzeko (pezetak)	162.052	148.459	136.876
Zerga bidezko dirusarrerak per cápita (pezetak)	87.451	74.525	63.981
Gastuak, biztanleko (pezetak)	147.073	125.881	131.190
Gastu arrunta, biztanleko (pezetak)	109.350	102.444	103.097
Finantza-zama, biztanleko (pezetak)	7.888	6.684	7.144
Zorpetze maila	% 5	% 5	% 6
Zorpetze muga (ehunekoa)	% 27	% 26	% 16
Zorpetze ahalmena	% 22	% 21	% 10
Zorra, guztira / dirusarrera arruntak	% 81	% 90	% 118
Aurrezki garbia (ehunekoa)	% 22	% 21	% 10
Langileen indizea (ehunekoa)	% 40	% 43	% 41
Inbertsio indizea (ehunekoa)	% 22	% 15	% 19
Dirulaguntzekiko menpekotasuna (ehunekoa)	% 41	% 43	% 40

Haren azterketatik, ondokoak nabarmentzen ditugu:

- Biztanle bakoitzeko zerga bidezko dirusarrerak ehuneko 17 hazi dira, eta gastu arruntak, aldiz, ez dira ia-ia igo.

- Finantza-zama, biztanle bakoitzeko ehuneko 18 igo da.

- dirusarrera arrunten gaineko zorpetzea, guztira, ehuneko 81 ingurukoa da; aurreko ekitaldieta-beheranzko bideari jarraituta.

- Zorpetze maila pixka bat igo da.

- Langileen gastuak zertxobait jaitsi dira –ehuneko 2–, eta inbertsioak, berriz, igo –ehuneko 7–. Hau da, gastatutako 100 pezetetatik 62 bideratzen dira kontzeptu horietara.

- Dirulaguntzekiko menpekotasuna ehuneko 43tik 41era jaitsi da; hau da, dirusarreretako 100 pezetatik 41 transferentzia eta dirusarreretatik datoz.

Ondoko taulan, udalaren eta haren erakunde autonomoen magnitude nagusiak azaltzen dira (pezetak, milioitan):

Magnitudea/Entitatea	Udala	Uren Batzarra	Castel-Ruiz	Bateratua
Diruzaintzako gerakina	658	278	3	939
Aurrekontuko emaitza	607	56	0	663
Ekonomia-emaitza	980	20	2	1002

Diruzaintzako gerakinari erreparatuta, hauxe nabarmentzen dugu:

Udal enteek 939 milioiko gerakin positiboa dute guztira, udalak eta Uren Batzarrak lortuta bereziki.

Banatuta, honela azaltzen dira 939 milioi horiek:

Atxikitako diruzaintzako gerakina	50
Gastu orokorretako diruzaintzako gerakina	889

• Azkenik, hona hemen gerakinak azken urteotan izan duen bilakaera (pezetak, miliotan):

Diruzaintzako gerakina	Bateratua	Udala
1996	(425)	(569)
1997	87	(101)
1998	55	(171)
1999	593	323
2000	939	658

Ikus daitekeenez, magnitude horren bilakaera ona izan da azken urteotan, defizit handia izatetik aldeko saldoa izatera pasa baita.

Bestalde, komeni da bere bilakaera aztertzea baina gastu orokorretarako gerakinari erreparatuz (pezetak, milioitan):

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina

Gastu orokorretarako	Bateratua	Udala
1996	(266)	(410)
1997	(169)	(354)
1998	(73)	(279)
1999	563	300
2000	889	608

C) ZORPETZEA

Balantzearen informazioaren arabera, ondoko taulan 1997tik 2000ra bitarteko zor bateratu guztia, epe luze zein laburrekoa, azaltzen da, milioitan. Orobat azaltzen dira zorpetzearekin zerikusia duten hainbat adierazle esanguratsu: • Epe laburrerako zorra gutxitu egin da aurreko bi urteen aldean. Epe luzerakoa ere 300 milioi gutxitu da azken urtean.

Zorra	1997	1998	1999	2000
Epe luzerakoa	2.885	2.821	2.621	2.484
Epe laburrerakoa	936	936	737	838
Zorra, guztira	3.821	3.757	3.358	3.322
Zorpetze maila	% 8	% 6	% 5	% 5
Zorpetze muga	% 14	% 16	% 26	% 27
Zorra/dirusarrera arruntak	% 127	% 118	% 90	% 81

• Zorpetze maila eta zorpetze muga ia batere ez dira aldatu azken urtean. Azkenik, dirusarrera arruntekiko zorra, guztira, ehuneko 81ra jaitsi da.

Laburbilduz, eta azken ondorio gisa, Udalak hobetu du bere finantza-egoera eta ongi betetzen ari da bideragarritasun finantzarioari buruzko plana.

TUTERAKO UDALAK AURKEZTURIKO IRUZKINAK

Orripean ageri den egunean, Tuterako Udaleko alkate-udalburuak, ondoko ebazpena eman du:

Ebazpena

Nafarroako Kontuen Ganbarako lehendakariaren 2001eko urriaren 11ko Ebazpena, Udalean 2001-10-15ean sartutakoa (10362 zenbakiko

sarrera), ikusi eta aztertu dugu. Hartan Tuterako Udalaren 2000ko ekitaldiari buruzko fiskalizazioaren gaineko behin-behineko txostena onesten da.

Ebatzi dut:


1.a Nafarroako Kontuen Ganbarari jakinaraztea Tuterako Udalak erabaki duela alegaziorik ez aurkeztea 2000ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostenari buruz.

2.a Kontuen Ganbarari eskerrak ematea txostena egiteko ahaleginengatik eta lanarengatik, eta agertzerak ematea Udalak bertan jasotako gomendioak betetzeko nahia, udal kudeaketa gero eta hobetuzko bidean.

Alkateak eman eta sinatzen du, Tuteran, bi mila eta bateko urriaren hemeretzian.

Alkatea: Luis Campoy Zueco

I. eranskina. Tuterako Udalaren organigrama, 2000-12-31n



2 eranskina. Erabilitako adierazleen definizioa

- dirusarreraren betetze-maila = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Gastuen betetze-maila = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Kobrantzen betetzea = $\frac{\text{Kobrantzak, guztira}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Ordainketen betetzea = $\frac{\text{Ordainketak, guztira}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Zorpetze-maila = $\frac{\text{Finantza-zama (3. eta 9. kapit.)}}{\text{dirusarrera arruntak (1-5 kapit.)}} \times 100$
- Zorpetze-muga = $\frac{\text{dirusarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. gastuak (1,2 eta 4. kapit.)}}{\text{dirusarrera arruntak}} \times 100$
- Zorpetze-ahalmena = Muga- zorpetze-maila
- Aurrezki garbia = $\frac{\text{dirusarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. eta finan. gastuak (1- 4 eta 9. kapit.)}}{\text{dirusarrera arruntak}} \times 100$
- Langileria indizea = $\frac{\text{Langileen aitorturiko betebeharrak}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Inbertsio-indizea = $\frac{\text{Inbertsio gastuak (6 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Diru-laguntzekiko menpekotasuna = $\frac{\text{Transferentziengatik aitorturiko eskubideak (4 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- dirusarrerak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastuak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastu arruntak biztanle bakoitzekoko = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak (1-4 kapit.), guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Presio fiskala edo tributu bidezko dirusarrerak biztanleko = $\frac{\text{Tributu bidezko dirusarrerak (1, 2 eta 3. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Finantza-zama biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Finantza-zamak (3 eta 9. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$